



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2016ko apirilaren 6a

48. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Nafarroako Unibertsitate Publikoari buruzko fiskalizazio txostena, 2014ko ekitaldiko, Kontuen Ganberak
egina (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Unibertsitate Publikoari buruzko fiskalizazio txostena, 2014ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko martxoaren 14an eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak Nafarroako Unibertsitate Publikoari buruzko fiskalizazio txostena egin du, 2014ko ekitaldikoa.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 205. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona hau ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2016ko martxoaren 14

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Nafarroako Unibertsitate Publikoari buruzko fiskalizazio txostena, 2014ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

Laburpen exekutiboa (3. or.).

I. Sarrera (4. or.).

II. Iritzia (6. or.).

II.1. 2014ko urteko kontuei buruzko auditoria finantzarioko iritzia (6. or.).

II.2. Legezketasuna betetzearen fiskalizazioari buruzko iritzia (7. or.).

III. Nafarroako Unibertsitate Publikoaren 2014ko ekitaldiko urteko kontuen laburpena. (8. or.).

III.1. 2014ko aurrekontuaren likidazioa (8. or.).

III.2. 2014ko ekitaldiko aurrekontuaren emaitza (9. or.).

III.3. Diruzaintza-gerakina 2014ko abenduaren 31n. (9. or.).

III.4. Egoera-balantzea 2014ko abenduaren 31n (10. or.).

III.5. 2014ko emaitzen kontua (11. or.).

IV. Oharpenak, iritzian eraginik ez dutenak, eta gomendioak (12. or.).

IV.1. Unibertsitatearen aurrekontu- eta finantza-egoera 2014ko abenduaren 31n, eta finantza-izaerakoa ez den bestelako informazioa. (12. or.).

IV.2. Kontuen Ganbera honek aurreko txostenetan emandako gomendioen betetzea. (23. or.).

IV.3. Aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasunaren printzipioak (24. or.).

IV.4. Kudeaketa-alor garrantzitsuak (26. or.).

IV.5. Genero berdintasuneko politikak (36. or.).

Eranskina. Nafarroako Unibertsitate Publikoaren 2014ko oroitidazkia.

(Oharra: Aipatutako eranskina foru parlamentarien esku dago Legebiltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan eta honako web helbidean: www.cfnavarra.es/camara.comptos).

LABURPEN EXEKUTIBOA

Kontuen Ganberak Nafarroako Unibertsitate Publikoaren 2014ko ekitaldiko kontu orokorrak fiskalizatu ditu.

Gure lana hauxe izan da: egiaztatzea ea kontu horiek egoera ekonomiko-finantzarioa ongi islatzen duten eta Unibertsitatearen jardueran legezketasunaren printzipioa bete den.

Aurreko helburuez gainera, honako hauek ere aztertu dira:

- Unibertsitatearen aurrekontu- eta finantza-egoera 2014ko abenduaren 31n.
- Kontuen Ganbera honek aurreko txostenetan emandako aholkuen betetze-maila.
- Aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasuneko printzipioen aplikazioa.

Halaber, aztertu dugu nolako jarduketak egin dituen Unibertsitateak generoko berdintasuneko politikari buruzko arauak direla eta.

Unibertsitatearen 2014ko ekitaldiko informazio garrantzitsua honela laburbiltzen dugu:

- Urte horretan, 70,56 milioiko aurrekontu-gastua egin du eta 71,74 milioiko diru-sarrerak izan ditu.
- 1.329 langile dauzka; horietatik, ehuneko 64 irakasleak dira.
- Ikasleak 8.295 dira.

Ondoren azaltzen ditugu lanaren ondorio nagusiak:

Lehen. Unibertsitatearen urteko kontuek fideltasunez erakusten dute, alderdi esanguratsuetan, haren ondarearen, haren finantza-egoeraren eta haren emaitza ekonomiko eta aurrekontukoaren irudia.

Bigarrena. Unibertsitateak garatutako jarduera bat dator, alderdi esanguratsu guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzekoa zaion araudiarekin.

Hirugarrena. 2014ko abenduaren 31ko aurrekontu- eta finantza-egoerari dagokionez, egoera ekonomiko orokorraren egungo testuinguruaren barruan, Unibertsitateak lortu du finantza-egoera saneatua edukitzea, funtsean honako hauengatik: gastuei eusteko eta haiek doitzeko politika bat izan du –funtsean funtzionamenduari eta inbertsioei dagokienez–; diru-sarrera berekiek garrantzi handiagoa hartu dute, eta diruzaintza-gerakin positiboa eta zorpetze txikia izan ditu. Gainera, kontuan hartu beharra dago Nafarroako Gobernuaren ekarpena gutxitu dela edo egonkor mantendu dela.

Laugarrena. Oro har, Unibertsitatea Ganbera honek aurreko txostenetan egindako gomendioak ezartzen ari da. Nafarroako Gobernuak, Unibertsitatearekin batera, azken horretarako urte anitzeko finantzaketa-eredu bat definitzeari buruzko gomendioak, berriz, indarrean jarraitzen du, egonkortasuna eta finantza-bideragarritasuna finkatu nahi baitira.

Bosgarrena. Aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko Lege Organikoaren eraginetarako, Unibertsitatea Foru Komunitateko Administrazioaren “administrazio publikoen” sektorekoa da. Horrenbestez, sektore horretan egiaztatu beharra dago, orokorrean, aipatutako lege organikotik ateratzen diren printzipioen betetzea. 2014an, Ganbera honek Nafarroako Gobernuaren ekitaldi horretarako kontu orokorrei buruzko txostenean adierazitakoari dagokionez, Foru Komunitateak haiek bete egin ditu.

Seigarrena. Generoko berdintasuneko politikari dagokienez, Unibertsitateak bere estatutuaren berdintasunaren arloko legezko aurreikuspenak txertatu ditu, eta jo du gai hori estrategikoa dela bere jarduerak garatzeko, eta ahalegin handiak egiten ari da irakaskuntzaren, administrazioaren eta ikasleen arloetan.

I. SARRERA

Kontuen Ganberak, 2015erako bere jarduketa-programari jarraituz, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren (aurrerantzean, Unibertsitatea) urteko kontuak, 2014ko ekitaldikoak, fiskalizatu egin ditu. Kontu horiek, funtsean, data horretan amaitutako ekitaldiko aurrekontuaren likidazioaren egoera-orriak, balantzeak, emaitza ekonomiko eta ondarezkoeen kontuak eta oroitidazkia jasotzen dituzte. Urteko kontu horiek 1994ko kontabilitate publikoaren plan orokorraren arabera egin dira.

Urteko kontuen finantza-auditoriarekin batera, legezketasunaren betetzeari buruzko fiskalizazioaren plangintza egin eta bete dugu, honako honi buruzko iritzi bat eman ahal izateko: ea Unibertsitateak ekitaldian zehar egindako jarduerak eta aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta 2014ko ekitaldiko urteko kontuetan jasotako informazioa bat ote datozen, alderdi esanguratsu guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzekoak zaizkion arauekin.

Honako hauek osatzen dute, funtsean, Unibertsitateari 2014an aplikatzekoa zaion arau-esparrua:

- Haren sorrerari buruzko apirilaren 21eko 8/1987 Foru Legea.
- Unibertsitateari buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoa (LOU), apirilaren 12ko 4/2007 Lege Organikoa eta Hezkuntzaren arloko gastu publikoa arrazionalizatzeko premiazko neurriari buruzko apirilaren 20ko 14/2012 Errege Lege Dekretuak aldatua.
- Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Gizarte Kontseiluari buruzko uztailaren 2ko 15/2008 Foru Legea.
- Unibertsitatearen estatutuak, maiatzaren 12ko 110/2003 Foru Dekretuak onetsiak eta Nafarroako Gobernuaren 2011ko martxoaren 21eko erabakiak aldatuak.
- Aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko apirilaren 20ko 2012 Lege Organikoa (LOEPSF izenez ezagutzen dena).
- Emakumeen eta gizonen aukera berdintasuna sustatzeko azaroaren 28ko 33/2002 Foru Legea eta Emakumeen eta Gizonen Egiatzko Berdintasunerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa.
- Nafarroako Gobernuaren 2013ko abenduaren 30eko erabakia, zeinak onetsi baitzituen 2014ko ekitaldirako luzatutako 2012ko aurrekontu orokorrak betetzeko arauak.
- Unibertsitatearen aurrekontua, 2014ko ekitaldikoa, eta hura betetzeko oinarriak eta ixteko eta likidatzeko erregulazio-arauak.
- Irakasleen eta ikertzaileen arloko estatuko araudia.
- Administrazioari eta zerbitzuetako langileen arloari, ogasun publikoari, kontratazio administratiboari eta diru-laguntzak emateari buruzko foru araudia.

Unibertsitatearen 2014rako aurrekontua Gizarte Kontseiluak onetsi zuen 2013ko abenduaren 27ko bilkuran; 2014ko kontu orokorrak, berriz, 2015eko ekainaren 1ean onetsi zituen aipatutako organoak.

Oroitidazkian aipatu bezala, 2014ko aurrekontuan aurrekontu-egitura edo -sailkapen ekonomiko eta funtzionalaren aldaketa garrantzitsu bat egin zen, etorkizunean kontabilitate analitikoaren ezartzea errazteko eta Unibertsitateak erabiltzen dituen baliabideak hobeki aurkezteko. Aldaketa horrek aurreko ekitaldiekiko alderaketak zailtzen ditu.

Txostena lau ataletan dago banatuta, sarrera hau barne. Bigarrenak gure iritzi finantzarioa eta legezketasunaren betetzeari buruzkoa azaltzen du, Unibertsitatearen 2014ko ekitaldiko urteko kontuei dagokienez. Hirugarren atalean jaso dugu urteko kontu horien laburpen bat. Azkenik, laugarren atalean, honakoak jaso ditugu: Unibertsitatearen aurrekontu- eta finantza-egoerari buruzko lortutako ondorioak edo oharrak; Ganbera honen aurreko txostenetako gomendioen jarraipena; aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren printzipioen betetzea, eta kudeaketa arlo garrantzitsuak. Halaber, emakumeen eta gizonen egiazko berdintasunari buruzko

araudia aztertu dugu, araudi horrek fiskalizazio-jarduketan xedearekin zerikusia izan dezakeen guztiari dagokionez.

Txostenak Unibertsitatearen 2014ko ekitaldiko oroitidazki ekonomikoaren laburpen¹ bat badauka. Oroitidazki horretan, eranskin gisa, Unibertsitatearen menpeko enterean, Unibertsitate-Gizarte Fundazioaren, emaitzen kontua jaso dugu. Fundazio horren kontuak kanpoko profesionalak auditatu izan dituzte, eta aldeko iritzia edo aldatu gabeko iritzia eman dute.

Gure jarduketan, kontuan hartu ditugu Unibertsitateko Kontu-hartzailletza eta Auditoria Zerbitzuak egindako txostenak eta lanak, bereziki 2014ko urteko kontuei dagokienean.

Halaber, nabarmendu beharra daukagu Unibertsitatearen webguneko Gardentasun Atariaren edukia, zeren eta informazio muntaduna baitu jarduera ekonomiko eta aurrekontukoari, irakas-kuntzako eta ikerketako jarduerari, giza baliabideei, kontratazioari eta plan estrategikoari buruz.

Azterketa lana 2015eko urritik abendura bitartean egin du auditoriako lau teknikaririk eta auditore batek osatutako lantalde batek, eta Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen lankidetzaren ere izan dute.

Jarduketa honen emaitzak Unibertsitateko egungo errektoreari jakinarazi zitzaizkion, bai eta 2014ko ekitaldian errektorea izandakoari eta gerenteari eta Gizarte Kontseiluko lehendakariari ere, kasua bada egokitzat jotzen zituzten alegazioak aurkezteko, Nafarroako Kontuen Ganberari buruzko 19/1984 Foru Legeko 11.2 artikuluan aurreikusitakoari jarraituz. Epea iraganda, txostenari ez zaio alegaziorik aurkeztu.

2014ko urtarrilean, Ganbera honek Unibertsitatearen 2012ko kontu orokorreari buruzko fiskalizazio txosten bat argitaratu zuen.

Eskerrak ematen dizkiegu Nafarroako Unibertsitate Publikoko langileei, lan hau egitean emandako laguntzarengatik.

¹ Oroitidazki horren dokumentu osoa Unibertsitatearen Gardentasun Atarian ikus daiteke, Unibertsitatearen webgunean (www.unavarra.es).

II. IRITZIA

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren urteko kontuak fiskalizatu ditugu, 2014ko ekitaldikoak. Haien kontabilitateko egoera-orriak modu laburtuan jaso ditugu txosten honen III. atalean; Unibertsitatearen oroitidazkia, berriz, osorik erantsi dugu.

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren erantzukizuna

Gerentzia da, errektorearen zuzendaritza pean, urteko kontuak egiteko ardura duena. Urteko kontu horiek, Gobernu Kontseiluak proposatuta, Gizarte Kontseiluak onetsiko ditu, halako moduz non irudi zehatza azal dezaten Unibertsitatearen ondareari, finantza-egoerari, emaitzei eta aurrekontu-betetzeari buruz, aplikatzekoa den finantza-informazio publikoko eta barne kontroleko arau-esparruari jarraituz, horren bidez prestatu eta aurkeztu ahal izateko iruzur edo akatsen ondoriozko oker materialik ez duten urteko kontu batzuk.

Urteko kontuak egiteko eta aurkezteko erantzukizunaz gainera, bermatu beharko du urteko kontuetan islatutako jarduerak, aurrekontu- nahiz finantza-eragiketak eta informazioa bat datozela aplikatzekoa den araudiarekin, eta xede horretarako beharrezkoak diren barne kontroleko sistemak ezarri beharko ditu.

Nafarroako Kontuen Ganberaren erantzukizuna

Gure erantzukizuna da iritzi bat adieraztea erantsitako urteko kontuei buruz eta gure fiskalizazioan oinarrituta egin diren eragiketen legezkotasunari buruz.

Horretarako, hura egin dugu Kanpo Kontroleko Erakunde publikoen fiskalizaziorako oinarrizko printzipioen arabera. Printzipio horiek exijitzen dute etikaren arloko eskakizunak bete ditzagula, bai eta fiskalizazioaren plangintza eta exekuzioa egin dezagula ere, honako helburuarekin: urteko kontuetan arrazoizko segurtasun bat lortzea eta haietan akats materialik ez egotea; eta finantzen egoera-orrietan islatutako jarduketak, finantza-eragiketak eta informazioa, alderdi adierazgarri guztietan, arau indardunen arabera izatea.

Fiskalizazio batek eskatzen du prozedura batzuk aplika ditzagula auditoria-ebidentzia bat lortzeko urteko kontuetan adierazitako zenbatekoei eta informazioari buruz, bai eta araudian ezarritako alderdi garrantzitsuak fiskalizatutako ekitaldian zehar betetzeari buruz ere. Hautatutako prozedurak auditorearen irizpidearen arabera dira, horren barne dela kontu orokorren akats materialei buruzko arriskuen balorazioa, akats hori iruzurraren nahiz akatsaren ondoriozkoa denean eta legezkotasunaren ez-betetze aipagarrien ondoriozkoa denean ere. Arriskuari buruzko balorazio horiek egiterakoan, auditoreak barne kontrola hartzen du kontuan –entitateak urteko kontuak egin ditzan eta legezkotasuna betetzen dela bermatzeko garrantzitsua baita– inguruabarren arabera auditoria prozedura egokiak diseinatze aldera, eta ez entitatearen barne kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emateko xedez. Auditoria batek barne biltzen du, era berean, aplikatutako kontabilitate-politiken egokitasuna eta zuzendaritzak egindako kontabilitate-estimazioen arrazoizkotasuna, bai eta urteko kontuen aurkezpena ere, oro har.

Gure ustez lortu dugun auditoria-ebidentziak behar adinako oinarria eta oinarri egokia biltzen du legezkotasunaren betetzeari buruzko finantza- eta fiskalizazio-auditoriaren iritzi aldatu gabeari eusteko.

II.1. 2014ko URTEKO KONTUEI BURUZKO AUDITORIA FINANTZARIOKO IRITZIA

Auditoriaren finantzarioko iritzia

Gure iritziak, erantsitako urteko kontuek, alderdi aipagarri guztietan, irudi zehatza erakusten dute, Unibertsitatearen ondareari eta finantza-egoerari dagokienez 2014ko abenduaren 31n, bai eta data horretan amaitutako ekitaldiko emaitza ekonomiko eta aurrekontukoei dagokienez ere, betiere aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko arau-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko eta aurrekontuen inguruko printzipio eta irizpideei jarraituz.

II.2. LEGEZKOTASUNA BETETZEAREN FISKALIZAZIOARI BURUZKO IRITZIA

Legezkotasunaren betetzeari buruzko iritzia

Gure iritziz, Unibertsitatearen 2014ko ekitaldiari buruzko urteko kontuetan jasotako jarduketak, aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta informazioa bat datoz, alderdi adierazgarri guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzekoak zaizkion arauekin.

Beste gai garrantzitsu batzuei buruzko lerrokada²

Unibertsitate Publikoak, administrazio publikoa den aldetik, aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasuneko printzipioak bete behar ditu. Alabaina, araudi indarduna dela eta, haren aurrekontu- eta finantza-informazioa Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari "administrazio publikoaren sektorean" sartzen da, eta sektore horren barruan egiaztatzen da, orokorrean, printzipio horien betetzea.

2014an, Ganbera honek Nafarroako Gobernuaren kontu orokorreari buruz emandako txostenaren arabera³, Foru Komunitateko administrazio publikoaren sektoreak bete egin ditu⁴ aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren printzipioak.

² Auditoriako arauak aipatzen dute lerrokada bat gehitu ahalko dela finantzen egoera-orrietan azaltzen ez diren beste gai batzuei buruz, hartzaileek eta erabiltzaileek txostena zuzen uler dezaten.

³ Txostena 2015eko azaroan argitaratu da eta Kontuen Ganberaren webgunean ikus daiteke (www.camaradecomptos.navarra.es).

⁴ Betetze horri buruz Ogasun eta Administrazio Publikoetako Ministerioak emanen duen behin beteko txostena falta da.

III. NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOAREN 2014ko EKITALDIKO URTEKO KONTUEN LABURPENA.

III.1. 2014ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Gastuen aurrekontuaren likidazioa, kapitulu ekonomikoen arabera

Deskribapena	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspena	Behin betiko aurreikuspen doituak	Aitortutako betebeharrak garbiak	Aitortutako betebeharrak garbiak (%)
1. Langile-gastuak	49.650.976	4.481.131	54.132.107	53.350.877	51.649.830	73
2. Ondasun arruntak eta zerbitzuak	11.710.537	8.826.937	20.537.474	20.104.765	13.361.922	19
3. Finantza-gastuak	9.601	7.924	17.525	17.525	9.679	0
4. Transferentzia arruntak	983.434	1.047.998	2.031.433	1.969.509	1.644.040	2
6. Inbertsio errealak	3.892.277	704.718	4.596.995	4.309.042	3.794.598	6
7. Kapital-transferentziak		2.565	2.565	2.565	1.851	
8. Finantza-aktiboak	5.000		5.000	5.000		
9. Finantza-pasiboak	215.530		215.531	215.530	95.681	0
Guztira	66.467.356	15.071.274	81.538.629	79.974.812	70.557.601	100

Diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioa, kapitulu ekonomikoen arabera

Deskribapena	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspena	Behin betiko aurreikuspen doituak	Aitortutako eskubide garbiak	Aitortutako eskubide garbiak (%)
3. Tasak eta bestelako diru-sarrerak	12.737.400	2.293.541	15.030.941	14.739.940	15.144.270	21
4. Transferentzia arruntak	52.734.254	5.022.741	57.756.995	57.120.755	56.348.202	79
5. Ondare bidezko diru-sarrerak	239.255		239.255	239.255	211.923	0
7. Kapital-transferentziak	119.870		119.870	119.870		
8. Finantza-aktiboak	636.577	7.708.595	8.345.172	7.708.596		
9. Finantza-pasiboak		46.396	46.396	46.396	38.838	0
Guztira	66.467.356	15.071.274	81.538.629	79.974.812	71.743.233	100

III.2. 2014ko EKITALDIKO AURREKONTUAREN EMAITZA

Kontzeptuak	Aitortutako eskubide garbiak	Aitortutako bete-behar garbiak	Diru-kopuruak
1. (+) Eragiketa ez-finantzarioak	71.704.395	70.461.920	1.242.475
1. kapitulua		51.649.830	-51.649.830
2. kapitulua		13.361.922	-13.361.922
3. kapitulua	15.144.270	9.679	15.134.590
4. kapitulua	56.348.202	1.644.040	54.704.162
5. kapitulua	211.923		211.923
6. kapitulua		3.794.598	-3.794.598
7. kapitulua		1.851	-1.851
2. (+) Finantza-eragiketak			
8. kapitulua			
I. EKITALDIKO AURREKONTU-EMAITZA (1+2)	71.704.395	70.461.920	1.242.475
9. kapitulua	38.838	95.680	-56.842
II. FINANTZA-PASIBOEN ALDE GARBIA	38.838	95.680	-56.842
III. EKITALDIKO AURREKONTU-SALDOA (I + II)	71.743.233	70.557.601	1.185.632
3. (+) Diruzaintza-gerakinarekin finantzatutako kredituak			
4. (-) Finantzazio desbideratze positiboak, finantzabide atxikia duten gastuetan, ekitaldiko baliabideak direla eta			
5. (+) Finantzabide desbideratze negatiboak, finantzabide atxikia duten gastuetan			873.607
IV. Ekitaldiko finantzaketaren superabita edo defizita (III + 3 + 4 + 5)			2.059.239

III.3. DIRUZAINITZA-GERAKINA 2014ko ABENDUAREN 31n.

Kontzeptua	2013ko ekitaldia	2014ko ekitaldia
1 (+) Kobratzeko dauden eskubideak	3.403.731	2.601.685
(+) Diru-sarrerak: Aurtengo ekitaldia	3.760.726	2.348.293
(+) Diru-sarrerak: Itxitako ekitaldiak	3.198.097	1.589.174
(+) Aurrekontukoak ez diren eragiketetatik	503.021	628.397
(+) Merkataritzako eragiketak	0	0
(-) Eginiko kobrantzak, behin betiko aplikatu gabeak	-474	0
(-) Kobratzeko zailak diren saldoak	4.058.587	1.964.178
2 (-) Ordaintzeko dauden obligazioak	4.002.793	4.639.640
(+) Gastuen aurrekontua: Aurtengo ekitaldia	2.251.784	2.601.581
(+) Gastuen aurrekontua: Itxitako ekitaldiak	1.233	393
(+) Aurrekontukoak ez diren eragiketetatik	1.749.263	2.040.392
(+) Merkataritzako eragiketetatik	0	0
(-) Eginiko ordainketak, behin betiko aplikatu gabeak	-512	2.726
3 (+) Funts likidoak	12.229.687	15.153.782
I. Diruzaintza-gerakina, guztira (1+-2+3)	11.630.624	13.115.828
II. Atxikitako diruzaintza-gerakina	7.708.595	6.834.989
III. Atxiki gabeko diruzaintza-gerakina (I-II)	3.922.029	6.280.840

III.4. EGOERA-BALANTZEA 2014ko ABENDUAREN 31n

AKTIBOA	2013	2014	PASIBOA	2013	2014
A) IBILGETUA	137.868.281	133.534.572	A) FUNTS BEREKIAK	147.047.682	144.268.561
II. Ibilgetu ez-materialak	930.831	728.961	I. Ondarea	127.912.262	127.912.262
2. Jabetza industrialak	446.748	485.352	1. Ondarea	123.083.338	123.083.338
3. Aplikazio informatikoak	8.493.623	8.704.069	3. Lagapen bidez jasotako ondarea	5.385.399	5.385.399
6. Bestelako ibilgetu ez-materialak	42.781	54.705	5. Lagatako ondarea	-556.475	-556.475
8. Amortizazioak	-8.052.321	-8.515.165			
III. Ibilgetu materialak	136.505.830	132.373.190			
1. Lursailak eta eraikinak	166.698.863	167.256.756	III. Aurreko ekitaldiko emaitzak	50.447.558	19.135.420
2. Instalazio teknikoak eta makineria	45.401.291	45.742.111	1. Aurreko ekitaldietako emaitza positiboak	50.447.558	19.135.420
3. Tresneria eta altzariak	17.910.966	18.054.084			
4. Bestelako ibilgetua	21.800.120	21.436.061			
6. Amortizazioak	-115.305.411	-120.115.822	IV. Ekitaldiko emaitzak	-31.312.138	-2.779.120
V. Finantza-inbertsio iraunkorrak	431.620	432.420	B) ARRISKU ETA GASTUETARAKO HORNIDURAK	27.179	14.636
1. Epe luzerako baloreen zorroa	427.819	427.819	c) EPE LUZEKO HARTZEKODUNAK	2.552.862	2.415.174
3. Epe luzerako eraturako fidantza eta gordailuak	3.801	4.601	II. Epe luzeko bestelako zorrak	2.552.862	2.415.174
B) ZENBAIT EKITALDITAN BANATU BEHARREKO GASTUAK	224.498	224.498	2. Bestelako zorrak	2.552.862	2.415.174
C) AKTIBO ZIRKULATZAILEA	15.632.431	17.758.194			
II. Zordunak	3.402.744	2.604.412	D) EPE LABURREKO HARTZEKODUNAK	4.097.487	4.818.893
1. Aurrekontuko zordunak	6.958.822	3.937.466	III. Hartzekodunak	4.097.487	4.818.893
2. Aurrekontuko ez diren zordunak	244.359	231.550	1. Aurrekontuko hartzekodunak	2.253.017	2.601.974
4. Administrazio publikoak	258.661	396.847	2. Aurrekontuko ez diren hartzekodunak	105.970	384.720
5. Bestelako zordunak	-513	2.726	4. Administrazio publikoak	1.604.857	1.619.774
6. Hornidurak	-4058.897	-1.964.178	5. Bestelako hartzekodunak	95.206	176.526
III. Aldi baterako inbertsio finantzarioak	8.000.000	11.500.000	6. Hartutako epe laburreko fidantzak eta gordailuak	38.437	35.898
1. Epe laburrerako baloreen zorroa	8.000.000	11.500.000			
IV: Diruzaintza	4.229.687	3.653.782			
Orokorra, guztira (A+B+C)	153.725.210	151.517.264	Guztira (A+B+C)	153.725.210	151.517.264

III.5. 2014ko EMAITZEN KONTUA

ZOR	2013	2014	HARTZEKO	2013	2014
A) GASTUAK	101.425.601	74.459.589	B) DIRU-SARRERAK	70.113.462	71.680.469
1. Zerbitzu eta prestazio sozialen funtzionamendu gastuak	74.803.070	71.053.972	1. Zerbitzuak ematea	12.033.410	13.472.565
a) Langile gastuak:	51.568.357	51.944.895	a) Zerbitzuak emateko edo jarduerak egiteko tasak	1.058.963	1.195.718
a.1) Soldatak, lansariak eta antzekoak	44.785.320	44.932.461	b) Zerbitzuak emateko edo jarduerak egiteko prezio publikoak	10.705.610	12.026.536
a.2) Gizarte-zamak	6.783.036	7.012.433	c) Jabari publikoaren erabilera pribatiborako edo aprobetxamendu berezirako prezio publikoak	268.937	250.311
c) Ibilgetua amortizatze zuzkidurak	8.443.139	8.126.949	2. Ohiko kudeaketako beste diru-sarrerak batzuk	2.035.965	1.845.753
d) Trafiko horniduretako aldeak	1.078.016	-2.094.408	a) Diru-itzultzeak	101.760	9.351
d.1) Horniduren aldea eta kobraezinak diren kredituen galerak	1.078.016	-2.094.408	c) Kudeaketaren ondoriozko beste diru-sarrerak batzuk	1.811.268	1.745.945
e) Beste kudeaketa-gastu batzuk	13.701.358	13.066.857	c.1) Diru-sarrera osagarriak eta ohiko beste batzuk	1.811.268	1.733.402
e.1) Kanpoko zerbitzuak	13.669.788	12.995.455	c.2) Arrisku eta gastuetarako horniduren gaindikina		12.543
e.2) Tributuak	4.391	71.403	f) Beste interes batzuk eta antzeko diru-sarrerak	119.813	85.484
e.3) Kudeaketa arrunteko bestelako gastuak.	27.179	0	f.1) Beste interes batzuk	119.813	85.484
f) Finantza-gastuak eta antzekoak	10.095	7.996	g) Kanbioan izaniko alde positiboak	3.123	4.973
f.1) Zorrek direla eta	9.336	7.996	3. Transferentziak eta diru-laguntzak	56.021.695	56.310.402
f.2) Finantza-inbertsioen galerak	759		a) Transferentzia arruntak	51.006.425	51.760.623
h) Kanbioan izaniko alde negatiboak	2.105	1.683	b) Diru-laguntza arruntak	5.014.671	4.548.206
2. Transferentziak eta diru-laguntzak	1.558.826	1.641.938	c) Kapital-transferentziak		
a) Transferentzia arruntak	12.363	6.000	d) Kapitaleko diru-laguntzak.	599	1.573
b) Diru-laguntza arruntak	1.522.648	1.634.087	4. Ezohiko irabazi eta diru-sarrerak	22.392	51.748
c) Kapital-transferentziak	23.814	1.850	c) Aparteko diru-sarrerak	13.389	50.443
3. Ezohiko galerak eta gastuak	25.063.704	1.763.679	Beste ekitaldi batzuetako diru-sarrerak eta etekinak	9.003	1.305
a) Ibilgetutik heldu diren galerak	0	3.731			
d) Beste ekitaldi batzuetako gastuak eta galerak	25.063.704	1.759.948			
AURREZKIA	0	0	DESAURREZKIA	-31.312.138	-2.779.120

IV. OHARPENAK, IRITZIAN ERAGINIK EZ DUTENAK, ETA GOMENDIOAK

Egindako fiskalizazioaren atal gisa, ondoren ohar eta iruzkin batzuk gehitu ditugu, iritzian eraginik ez dutenak, bai eta Ganbera honen ustez txosten honen hartzaile eta erabiltzaileentzat interesgarri gerta daitekeen informazio gehigarri bat ere.

Halaber, Unibertsitatearen kudeaketa ekonomiko eta aurrekontukoa hobetzeko egindako gomendioak jaso ditugu.

Hurrengo bost atalek egituratzen dute zati hau:

- Unibertsitatearen aurrekontuaren eta finantzen egoera-orria, 2014ko abenduaren 31n, eta hari buruzko informazio ez-finantzarioa.
- Ganbera honek lehendik eman dituen txostenetako gomendioen jarraipena.
- Aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasunaren printzipioak.
- Kudeaketa-alor garrantzitsuak.
- Emakumeen eta gizonen egiazko berdintasunerako araudiaren betetzea, arauri horren arabera fiskalizazio-jarduketan xedearekin lotura izan dezakeen guztian.

IV.1. UNIBERTSITATEAREN AURREKONTU- ETA FINANTZA-EGOERA 2014ko ABENDUAREN 31n, ETA FINANTZA-IZAERAKOA EZ DEN BESTELAKO INFORMAZIOA.

Atal honetan aztertzen da, batetik, 2014ko abenduaren 31ko aurrekontu- eta finantza-egoera eta aurreko ekitaldikoarekin alderatzen da; bestetik, Unibertsitatearen 2009, 2012 eta 2014ko ekitaldietako adierazle ez-finantzario batzuen bilakaera aztertzen da, langileei, titulazioei, ikasleei eta ikerketari buruzkoak.

IV.1.1. Unibertsitatearen aurrekontu- eta finantza-egoera 2014ko abenduaren 31n

A) 2014ko aurrekontua eta haren likidazioa

Unibertsitatearen 2014rako hasierako aurrekontua Gizarte Kontseiluak onetsi zuen 2013ko abenduaren 27an, eta haren zenbateko orokorra 66,47 milioikoa zen. Hasierako aurrekontu horretan, honako hauek ageri ziren:

- Nafarroako Gobernuaren 49,46 milioiko ekarpen bat, Unibertsitatearen oinarrizko finantzaketarako edo baldintzarik gabeko finantzaketarako, eta 2,97 milioiko finantzaketa baldintzatu bat, irakasleen ordainsari osagarrietarako.
- Aurreko ekitaldietako atxiki gabeko diruzaintza-gerakinaren zati bat 2014ko aurrekontu-gastuetatik 0,64 milioi finantzatzeko erabiltzea. Hasierako aurrekontuan atxiki gabeko gerakina erabiltzeari buruzko aurreikuspena Unibertsitateei buruzko Lege Organikoan jasota dago.

Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren 2014rako aurrekontua onetsi ez zuenez, 2012ko aurrekontua luzatu zen berriz ere. 2013ko abenduaren 30eko Gobernu Erabakia aplikatuta –luzapen hori arautuko duten betetze arauak ematen ditu–, Unibertsitatearen 2014rako oinarrizko finantzaketa 48,83 milioitan ezarri zen; hau da, Unibertsitatearen beraren hasierako aurrekontuak jasotakoa baino 0,63 milioi gutxiago. Irakasleentzako ordainsari osagarrien finantzaketarako 2,97 milioiak, berriz, ez ziren aldatu.

Gobernuaren erabaki horrek ezartzen du, halaber, aurrekontu-egonkortasunaren helburua nola banatuko den, eta oreka-egoera bat finkatzen du Unibertsitaterako. Hori dela eta, ezin du defizitik sortu. Horren guztiaren emaitza da ezinezko gertatzen dela atxiki gabeko diruzaintza-gerakina erabiltzea finantzabide gisa, nahiz eta horixe aurreikusi Unibertsitatearen hasierako aurrekontuak –0,64 milioi erabiltzea aurreikusten zuen–.

Aurreko bi egoera horien ondorioz eta errektorearen ebazpenez, gastuen aurrekontuan zenbait kontusailetan baliagarritasun-ezeko atxikipen bat egin zen, guztira 1,27 milioi egiten duena.

Bestalde, 2014/2015 ikastererako hasiera batean aurreikusitako urteko matrikularako egutegia aldatu zen, eta titulazio batzuetan seihilekoko matrikula ezarri zen. Horrek berarekin dakar 2014ko diru-sarreraren aurreikuspenek 0,29 milioi behera egitea, eta kopuru hori 2015eko ekitaldira aldatzea. Errektorearen ebazpenez, zenbateko hori egiten duen gastuetarako kredituen baliagarritasun-ezeko atxikipen bat egin zen.

Baliagarritasun-ezeko atxikipen horien emaitza izan zen 2014ko gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuaren betetzeari buruzko egoera-orrietan beste zutabe bat agertzea, ohiko zutabeez gainera, diru-sarreraren aurreikuspenekin eta behin betiko gastu "doituen" kredituarekin. "Doituen" zutabe horretan kalkulatzen dira aurrerago deskribatzen diren aurrekontu-betetzeari buruzko analisiak eta adierazleak.

- Hasierako kredituek diru-sarrera finalistei lotutako aldaketa garbi batzuk izan dituzte, 15,07 milioioiak; hau da, ehuneko 23ko igoera izan da. Horri buruz, hauxe esan behar dugu:

a) Gastuetan, nabarmentzekoa da gora egin dutela ondasun arrunten eta zerbitzuen esparrukoek -8,83 milioi, hau da, hasierako kredituaren aldean, ehuneko 75eko igoera-, langileen arlokoek -4,48 milioi, hau da, ehuneko bederatzia-, eta transferentzia arruntetakoek -1,05 milioi, hau da, ehuneko 107-.

b) Diru-sarreretan, igoerarik handienak finantza-aktiboetan gertatu dira, 7,71 milioi, transferentzia arruntetan, 5,02 milioi, eta tasa eta prezio publikoetan, 2,29 milioi.

c) Aurrekontu-aldaketa horien izaera hurrengo taulan ageri da (euroak, milakotan):

Aurrekontu-aldaketak-Mota	Kopurua
Kreditu gehikuntza	1.031
Kreditu-transferentzia positiboak	540
Kreditu-transferentzia negatiboak	-540
Kredituak sartzea	7.709
Sortutako kredituak	6.340
Baliogabetzeen ondoriozko bajak	-8
Beste espediente positibo batzuk	5.291
Beste espediente negatibo batzuk	-5.291
Guztira	15.071

- Behin betiko kredituek 81,54 milioi egiten dute; baldin eta "doitua" kontzeptua kontuan hartzen badugu -hau da, baliagarritasun-ezeko atxikipenak kenduta-, behin betiko kreditu doitu hori 79,97 milioiokoa da. Azken zenbateko hori da Unibertsitateak aurrekontu-betetzeari buruzko analisietan erabiltzen duena.

Kreditu doitu horretatik, 15,19 milioi atxikiak dira eta gainerakoa, berriz, 64,78 milioi, atxiki gabekoak dira.

- Aitortutako betebeharrak 70,56 milioi euro egin dute, eta betetze-maila % 88koa izan da. Nabarmentzekoa da langileen arloko gastuen betetze-portzentaje handia -ehuneko 97- eta ondasun arrunt eta zerbitzuen arloko betetze txikia -ehuneko 66-.

2014an aitortutako betebeharren ehuneko 10 diru-sarrera finalistekin finantzatutako gastuei dagokie: 7,28 milioi dira.

- Langile-gastuak 51,65 milioioak dira, eta gastu guztien ehuneko 73 egiten dute. Langileen arloko gastu hori honela dago banatuta (euroak, milakotan):

Langile-gastuak	2014	%
IILen lansariak	27.400	53
AZLen lansariak	13.784	27
Ikertzaileen ordainsariak	3.569	7
Gizarte-zamak	6.833	13
Prestakuntza	64	-
Langile-gastuak, guztira	51.650	100

Hala, 2014ko abenduaren 31n, 1.329 pertsona ari ziren lanean Unibertsitatean, honela banatuta:

Unibertsitateko langileak-2014	Kopurua
Irakasle eta ikertzaile diren langileak (IIL)	856
Administrazioko eta Zerbitzuetako langileak (AZL)	473
Langileak, guztira	1.329

- Ondasun arrunt eta zerbitzuetan, Unibertsitateak guztira 13,36 milioi gastatu ditu; hau da guztizko gastuaren ehuneko 19. Kopuru horretatik, nabarmentzekoak dira beste enpresa batzuek egindako lanetatik heldutakoak (garbiketako kontratuak, segurtasuna), 4,13 milioi egiten baitute; horniduren arlokoak, 2,40 milioioak; eta ikerketa-proiektuekin eta -kontratuekin lotutakoak, 1,57 milioioak.

- Inbertsioak direla-eta egindako gastuak 3,8 milioioak izan dira; hau da, guztizko gastuaren ehuneko bost. Kopuru horretatik, ehuneko 43 funts bibliografikoei dagokie; ehuneko 15 eraikintan egindako jarduketei; eta ehuneko zortzi, azkenik, ikerketa-proiektu eta -kontratuetan egindako inbertsioei.

- Aitortutako eskubideek 71,74 milioi euro egiten dute guztira, eta betetze-maila ehuneko 90 da. Honako hauek dira portzentaje handiena duten kapituluak: tasak eta prezio publikoak, ehuneko 103rekin, eta transferentzia arruntak, ehuneko 99rekin.

2014an aitortutako eskubideen ehuneko bederatzi diru-sarrera finalistei dagokie: 6,63 milioi dira.

- 2014ko prezio publikoak 12,14 milioioak izan dira; hona haien xehetasunak (euroak, milakotan):

Prezio publikoak-2014	Kopurua
Matrikula eskubideak Titulazio ofizialak	10.482
Matrikula eskubideak Arautu gabeko irakaskuntzak	1.272
Kirol jarduerak direla eta	189
Lokal eta instalazioen erabilpena	129
Beste prezio publiko batzuk	67
Prezio publikoak, guztira	12.138

Titulazio ofizialen barruan, ziklo, gradu, doktoretza eta master ikasketen matrikulak jasotzen dira; arautu gabeko irakaskuntzetan, berriz, funtsean titulu berekietako eta hizkuntzen goi mailako ikastegiko eskubideak sartzen dira.

- 2014an, Nafarroako Gobernuarekiko finantzaketa-hitzarmenetik heldutako diru-sarrerek honako mugimendu hauek izan dituzte (euroak, milakotan).

2014ko hitzarmena	Hasierako aurreikuspenak	Murrizketak	Amaierako zenbatekoa	Justifikatua eta onartua	Kobrantzak	Justifikatzeko dagoena
Irakasleen eta ikertzaileen finantzaketa	49.464	636	48.828		48.828	
<i>Oinarrizko finantzaketaren edo finantzaketa baldintzatu gabearren guztizkoa, honaino</i>	49.464	636	48.828		48.828	
Irakasleen ordainsari osagarriak	2.966		2.966	2.933	2.933	34
<i>Finantzaketa baldintzatuaren guztizkoa, honaino</i>	2.966		2.966	2.933	2.933	34
Hitzarmena, guztira	52.430	636	51.794	2.932	51.761	34

Hitzarmena dela-eta aitortutako eskubide garbiak, 2014an, 51,75 milioikoak dira, ez baitira justifikatu irakasleen ordainsari osagarrietako 33.656 euro eta 2013ko langileen 1. kapituluaren 10.087 euroko itzulketa izan baita, uste baino gastu txikiagoa egitearen ondorioz.

Guztira, 348 irakaslek jaso dituzte ordainsari osagarriak. Justifikatzeko gelditu den zenbatekoa honako honi dagokio: irakasle jakin batzuen inguruabar pertsonalak (bajak, lizentziak, eszedentziak...) direla-eta haiei ordaindutako ordainsari osagarriak aurreikusitakoak baino txikiagoak izan dira.

2014ko hitzarmenaren barruan, ez dago jasota inbertsioetarako finantzaketa berariazkorik.

- Finantza-pasiboen bidezko diru-sarrera garbietan, 2014an, 38.838 euroko hiru aurrerakin jaso dira, ikerketa proiektuetarako emandakoak. Aurrerakin horiek ez dute funtsen irteerarik ekarriko, baldin eta proiektuak egin eta egoki justifikatzen badira.

- Laburbilduz, Unibertsitateak gastatutako 100 eurotik bakoitza honela erabili eta finantzatu da:

Gastuaren izaera	Kopurua	Finantzabidea	Kopurua
Langileak	73	Tasak, prezio publikoak	21
Ondasun arruntak eta zerbitzuak	19	Transferentzien bidezko diru-sarrerak	79
Transferentzien bidezko gastuak	2		
Inbertsio errealak	6		
	100 e		100 e

- Gastu politikak. Hurrengo taulan erakusten dugu, milaka eurotan adierazita, Unibertsitateak nolako gastu-politikak izan dituen 2014an, urte horretan ezarritako aurrekontu-sailkapen berriarekin bat.

2014ko gastu politikak	Hasierako aurrekontua	%	Betetakoa	%
1 Irakaskuntzaren kudeaketa	3.105	5	4.202	6
2. Irakaskuntzaren eta ikerketaren garapena	36.588	55	35.892	51
3 Ikerketa zientifikoa, teknikoa eta aplikatua	4.020	6	8.687	12
4 Atzerri harremanak	543	1	1.202	2
5 Gizarte ekintza	486	1	360	1
6 Unibertsitate-hedadura	1.505	2	1.486	2
7 Orotariko jarduerak	20.220	30	18.729	26
Guztira	66.467	100	70.558	100

Ikusten denez, 2014an Unibertsitatearen gastuaren ehuneko 95ek honako ardatzak izan ditu: irakaskuntzaren eta ikerketaren garapena –ehuneko 51–, jarduera orokorrak –ehuneko 26–, ikerketa zientifikoa –ehuneko 12– eta irakaskuntzaren kudeaketa –ehuneko 6–.

Hasierako aurreikuspenei erreparatuta, gastuak ehuneko sei egin du gora –lau milioi gehiago–. Portzentajeei begiratuta, igoera handienak kanpoko harremanetan eta ikerketa zientifikoa geratu dira; jaitsiera handienak, berriz, gizarte ekintzan eta jarduera orokorretan izan dira.

B) 2013ko eta 2014ko alderaketa eta 2009tik izan den bilakaera

Hurrengo taulan erakusten dugu nolako bilakaera izan duten Unibertsitatearen aurrekontuko eta finantzatuko zenbait adierazle eta magnitudeak. Zenbait adierazletan, halaber, 2009ko ekitalditik izandako bilakaera aztertzen da:

Adierazleak eta magnitudeak (euroak milakotan)	2013	2014	Aldea (%) 2014/13
Hasierako aurrekontua	68.896	66.467	-4
Behin betiko aurrekontu "doitua"	82.531	79.975	-3
Hasierako gastu-aurrekontuekiko aldaketa %	25	23	
Aitorturiko betebeharrak, guztira	71.445	70.558	-1
Likidatutako eskubide garbiak, guztira	70.106	71.743	2
Gastuen betetzea (%)	87	88	
Diru-sarreraren betetzea (%)	85	90	
Ordainketak (%)	97	96	
Kobrantsak (%)	95	97	
Langile-gastuak	51.320	51.650	1
Gastu guztien % zenbat diren langile gastuak	72	73	
Gastu arruntak (1. kapitulutik 4.era)	66.789	66.666	0
Funtzionamendu-gastuak (1., 2. eta 4. kapituluak)	66.778	66.656	0
Finantza-zama (3. eta 9 kapituluak)	23	105	357
Inbertsioetan egindako gastuak (6. eta 7. kapituluak)	4.644	3.796	-18
Finantza eragiketen gastuak (8 eta 9)	12	96	700
Tasen, prezio publikoen eta bestelako bitarteko diru-sarrerak (3)	13.813	15.144	10
Tasen bidezko diru-sarrerak gastu arruntetan zenbat egiten duten (%)	21	23	
Adierazleak eta magnitudeak (euroak milakotan)	2013	2014	Aldea (%) 2014/13
Diru-sarrera arruntak (3. kapitulutik 5.era)	70.104	71.704	2
Transferentzien bidezko diru-sarrerak zenbat egiten duten diru-sarreraren guztizkoan (%)	80	79	
Finantza eragiketen bidezko diru-sarrerak (8. eta 9. kapituluak)	1	39	3.800
Aurrezki gordina	3.327	5.049	52
Finantza-zama (gastuen 3. eta 9. kapituluak)	23	105	357
Aurrezki garbia	3.304	4.944	50
Aurrekontuko saldo ez-finantzarioa	-1.328	1.242	194
Aurrekontu-emaizta	1.061	2.059	94
Diruzaintza-gerakina, guztira	11.631	13.116	13
Atxikitako diruzaintza-gerakina	7.709	6.835	-11
Atxiki gabeko diruzaintza-gerakina edo gastu orokorretarakoa	3.922	6.281	60
Zorpetze finantzarioa (epe luze eta laburrean)	2.649	2.592	-2
Zorpetzeak diru-sarrera arruntetan zenbat egiten duen (%)	4	4	
Etorkizuneko ekitaldietarako aurrekontu-gastuen konpromisoak	6.179	8.065	31
Diruzaintza	4.230	3.654	-14
Aldi baterako inbertsio finantzarioak	8.000	11.500	44
Maniobra-funtsa	11.535	12.939	12

Horiek aztertuta, ondoko alderdiak nabarmentzen ditugu, funtsean:

- 2014ko hasierako aurrekontua aurreko ekitaldikoa baino ehuneko lau txikiagoa da; behin betiko aurrekontu doitua, berriz, ehuneko hiru txikiagoa da.

2009ko ekitaldiarekin⁵ alderatuta, 2014ko hasierako aurrekontua eta aurrekontu doitua, oro har, ehuneko 11 –hau da, zortzi milioi– eta ehuneko 18 –hau da, ia 18 milioi– jaitsi dira, hurrenez hurren.

- 2014ko aitortutako betebeharrak aurreko urtekoen aldean ehuneko bat jaitsi dira; eskubi-deek, berriz, ehuneko bi egin dute gora.

2009ko datuekin alderatuta, aitortutako gastuak eta diru-sarrerak, oro har, ehuneko 14 –hau da, 11 milioi– eta ehuneko bederatzia –hau da, zazpi milioi– jaitsi dira, hurrenez hurren. Gastuen gutxitzea –kapitulu guztietan aplikatzekoa dena– funtsean ondasun arrunt eta zerbitzuetan eta inbertsioetan justifikatzen da, 5,5 eta 4,5 milioi gutxiagorekin; diru-sarreretan, berriz, ikusten da, funtsean, transferentzietakoak 8,1 milioi jaitsi direla eta tasen bidezkoak 1,15 milioi handitu direla.

- Langile-gastuek, 2014ko ekitaldian, ehuneko bat egin dute gora, aurreko ekitaldikoekin alderatuta. 2009tik gastu horiek honako bilakaera izan dute (euroak milakotan):

Langile-gastuak	2009	2010	2011	2012	2013	2014
Langile-gastuen zenbatekoa	52.345	52.064	51.595	49.828	51.320	51.650
Aurkibidea	100	99	98	95	98	99
Guztizko gastuen gaineko ehunekoa	64	65	66	66	72	73

Hau da, nahiz eta langile-gastuen zenbatekoa ia lehengo maila berdinetan dagoen, gora egin du aurrekontu-gastuaren guztizkoan daukan garrantzi erlatiboak. Garrantzi erlatiboaren gora egite horrek honako justifikazio hau dauka: Unibertsitatearen guztizko gastuak ehuneko 14 egin du behera 2009tik 2014ra.

- Gastu arruntak eta funtzionamendukoak ia ez dira aldatu 2013ko eta 2014ko ekitaldietan.

Ondasun arruntetan eta zerbitzuetan egindako gastuek 2009tik 2014ra izan duten bilakaera (2. kapitulua) hurrengo taulan erakutsi dugu, milaka eurotan adierazia.

Gastuak, ondasun arruntetan eta zerbitzuetan	2009	2010	2011	2012	2013	2014
Ondasun arrunt eta zerbitzuen zenbatekoa	18.862	18.671	17.730	16.578	13.922	13.362
Aurkibidea	100	99	94	88	74	71
Guztizko gastuen gaineko ehunekoa	23	23	23	22	19	19

Aztertutako aldian, gastu horiek ehuneko 29 egin dute behera –hau da, 5,5 milioi– eta Unibertsitatearen guztizko gastuetan duten garrantzi erlatiboa ehuneko 19koa da. Egoera horrek islatzen du Unibertsitateak urte hauetan gastu arrunta mugatu egin duela.

- 2009tik inbertsio-gastuek honako bilakaera izan dute (euroak, milakotan):

Inbertsio errealeko gastuak	2009	2010	2011	2012	2013	2014
Inbertsioen zenbatekoa	8.328	7.343	6.645	6.686	4.620	3.795
Aurkibidea	100	88	80	80	55	46
Guztizko gastuen gaineko ehunekoa	10	9	8	9	6	5

⁵ Unibertsitatearen oroitidazkiaren 4.9 atalean, aurrekontuen bilakaerari eta haren likidazioari buruzko analisi bat egin da, 2009tik hasi eta 2014ra bitartekoa. Analisi horretako zenbatekoak euro korrontetan adierazita daude.

Ikusten denez, inbertsioek ehuneko 54 egin dute behera –hau da, 4,5 milioi gutxiago dira– eta guztizko gastuaren ehuneko hamar izatetik ehuneko bost izatera pasa dira.

Gastu txikiago horretan eragina izan du 2012tik azpiegitura eta ekipamenduetan inbertsioak egiteko baliabide berariazkorik ez dela egon Nafarroako Gobernuarekin sinatutako finantzaketa-hitzarmenetan.

- Tasen eta prezioen bidezko diru-sarrerek 1,3 milioi egin dute gora, eta gastu arruntaren ehuneko 23 inguru finantzatzen dute. 2009tik, kapitulu horrek honako bilakaera izan du (euroak milakotan):


Tasak, prezio publikoak eta bestelako diru-sarrera batzuk	2009	2010	2011	2012	2013	2014
Tasa eta prezio publikoen zenbatekoa	13.996	12.620	12.737	13.003	13.813	15.144
Aurkibidea	100	90	91	93	99	108
Ehunekoa, diru-sarreraren guztizkoaren gainean	18	15	16	18	20	21

Hau da, 2009tik 2014ra tasen bidezko diru-sarrerek ehuneko zortzi egin dute gora; hau da, milioi bat baino gehiago. Hala eta guztiz ere, igoera hori aipatutako azken urtean izan da bereziki.

Halaber, ikusten da finantzabide horrek Unibertsitatearen diru-sarreraren guztizkoan duen garrantzi erlatiboa pixkanaka handitzen ari dela. Garrantzi erlatiboaren gora-egite horrek honako justifikazio hau dauka: Unibertsitatearen guztizko diru-sarrerek ehuneko bederatzi egin dute behera; 2014an, berriz, gora egin dute.

- Transferentzia arruntaren bidezko diru-sarrerak, 56,35 milioi egiten dutenak, diru-sarrera guztien ehuneko 79 dira, aurreko ekitaldian baino puntu bat gutxiago. Nabarmentzekoa da 2014an izaera horretako ikerketarako diru-sarrerak ehuneko 17 jaitsi direla: 3,9 milioitik 3,2 milioira.

Hurrengo irudian ikusten dugu Unibertsitatearen diru-sarrerak finantzabide horren menpe daudela erabat, 2009tik 2014ra.



Halaber, aipatu behar dira finantza-entitateekiko hitzarmenen bitartez Unibertsitateak, 2014an, 0,55 milioi jaso dituela guztira.

- Transferentzien bidezko diru-sarreraren barruan, nabarmentzekoak dira Nafarroako Gobernuarekiko finantza-hitzarmenetik heldutakoak. Hurrengo taulan erakusten dugu 2009tik nolako bilakaera izan duten finantzabide horretatik aitortutako eskubideek (euroak, milakotan):

Nafarroako Gobernuaren finantzaketarako hitzarmena	2009	2010	2011	2012	2013	2014
Hitzarmenaren zenbatekoa	55.859	60.188	56.983	51.645	51.017	51.751
Aurrekontu-diru-sarrerak, guztira	78.918	82.660	79.652	71.050	70.106	71.743
<i>Hitzarmenak diru-sarreretan zenbat egiten duen</i>	<i>71</i>	<i>75</i>	<i>72</i>	<i>73</i>	<i>73</i>	<i>72</i>
Aurrekontu-gastuak, guztira	81.751	80.273	78.335	75.126	71.445	70.558
<i>Hitzarmenak gastuetan zenbat egiten duen</i>	<i>68</i>	<i>77</i>	<i>73</i>	<i>69</i>	<i>71</i>	<i>73</i>

Hau da, 2009tik 2011ra hitzarmena dela-eta Gobernuak egindako ekarpen garbiak lau, zortzi eta bost milioi egin du behera, hurrenez hurren. Azken hirurtekoan, berriz, nolabaiteko egonkortasunari eusten zaio, urtean 51,5 milioi ingurukoa baita ekarpena. Aitortutako diru-sarrei eta gastuei dagokienez, hitzarmenak haien ehuneko 70 egiten du ia urte guztietan.

Nabarmentzekoa da, halaber, 2012ko ekitalditik ez direla jaso, kasuko hitzarmenetan, ez inbertsioetarako berariazko finantzabiderik, ez Tuterako campusean ikasketak garatzeko ere.

- Aurrezki gordinak eta garbiak hobera egin dute 2013koekin alderatuta, eta haien zenbatekoa ehuneko 50 igo da.

Nabarmentzekoa da Unibertsitatearen finantza-zamak, 2014an izandako igoera gorabehera, oraindik ere garrantzi eskaseko magnitude bat izaten jarraitzen duela, termino kuantitatiboetan, Unibertsitateko gastuetan.

- Aurrekontu-saldo ez-finantzarioak nabarmen egin du hobera 2014an, zeren eta 2013an 1,32 milioiko defizita izatetik 2014an 1,24 milioiko superabita izatera pasa baita; alde hori honela azal daiteke: batetik gastu ez-finantzarioak ehuneko bat jaitsi dira eta, bestetik, izaera bereko diru-sarrerak ehuneko bi egin dute gora. Unibertsitateak jotzen du adierazle hori finantzaketa-ahalmena dela, aurrekontu-egonkortasunaren eraginetarako.

- Guztizko diruzaintza-gerakinak ehuneko 13 egin du gora –hau da, 1,49 milioi–, eta 2014an 13,11 milioikoa izatera iritsi da: atxikia ehuneko 11 jaitsi da eta eta atxiki gabea edo gastu orokorretarakoa, berriz, ehuneko 60 igo da.

Hurrengo taulan erakusten dugu magnitude horrek 2009tik izan duen bilakaera (euroak, milakotan):

Diruzaintza-gerakina	2009	2010	2011	2012	2013	2014
Gerakina, guztira	14.782	16.919	17.941	14.638	11.631	13.116
Atxikitako gerakina	11.881	11.962	13.056	9.523	7.709	6.835
Atxiki gabeko gerakina edo gastu orokorretarakoa	2.901	4.957	4.885	5.115	3.922	6.281
Hurrengo urteko aurrekontuaren finantzaketa	914	1.490	1.694	1.336	–	–
Diruzaintza-gerakin likidoa	1.987	3.467	3.191	3.779	3.922	6.281

Aztertutako sailaren barruan, 2014an, atxiki gabeko gerakina zenbateko handienera iritsi da; atxikia, berriz, zenbateko txikienera iritsi da.

Unibertsitatearen 2014ko oroitidazkia idazteko garaian –2014ko apirilean–, 2014ko abenduaren 31ko diruzaintza atxiki gabetik, guztira 0,61 milioi kontsumitu ditu 2012ko abenduko aparteko soldataren ordainketa partziala finantzatzeko. Aplikazio hori Nafarroako Gobernuak baimendu zuen, 2015eko martxoko erabaki baten bitartez.

- 2014an, zorpetze finantzarioak ehuneko bi egin du behera, eta 2,59 milioikoa izatera iritsi da. Zenbateko horrek entitatearen diru-sarrera arrunten ehuneko lau eskas egiten du.

Zorpetze horren xehetasunei erreparatuta, milaka eurotan adierazita, hurrengo taulan ikusten den bezala, ikusten da kopuru horiek, funtsean, nazioarteko campusetik eta ikerketarako laguntzetatik heldu direla, eta entitate publikoek emandakoak direla.

Maileguak (euroak, milakotan)	Epe luzera	Epe laburra	Zorra guztira
FEDER, ikerketa-proiektuak	168	12	180
Zientzia Ministerioa, Innocampus Programa	837	84	921
Nafarroako Gobernuak, Iberus Campusa	889	81	970
FEDER, aurrerakin itzulgarriak, ikerketa proiektuak	482	-	482
Zientzia Ministerioa, ikerketarako laguntzak	39	-	39
Zorraren guztizkoa, 2014ko abenduaren 31n	2.415	177	2.592

- 2014ko diruzaintza-saldoa 2013koaren aldean ehuneko 14 jaitsi bada ere -0,6 milioi-, aldi baterako finantza-inbertsioak -epe luzeko ezarpenak- ehuneko 44 hazi dira -3,5 milioi gehiago-koak dira-. Maniobra-funtsak ere ehuneko 12 egin du hobera, eta 2014an ia 13 milioikoa da.

Horrenbestez, Unibertsitate Publikoaren 2014ko abenduaren 31ko aurrekontu- eta finantza-egoera dela eta, esan behar dugu egoera ekonomiko zaileko gaurko testuinguru orokorrean, Unibertsitateak finantza-egoera saneatuari eutsi diola, honako arrazoiak tarteko:

- Gastuak nabarmen jaitsi ditu; izan ere, 2009tik gastuak, oro har, 11 milioi jaitsi ditu, batez ere funtzionamendukoak eta inbertsioetakoak.

- Diru-sarreretan, berriz, aipatutako aldiaren, doikuntza txikiagoa izan da, diru-sarrerak zazpi milioi egin baitute behera. Jaitsiera hori, funtsean, heldu da Nafarroako Gobernuarekiko hitzarmenaren finantzaketatik eta gainerako transferentzietatik, eta partzialki konpentsatu da tasak eta prezio publikoak igotzearekin.

- Atxiki gabeko diruzaintza-gerakina positiboa da eta zenbateko aipagarria dauka.

- Zorpetzea oso txikia da, eta hartatik heldu da Unibertsitateak finantza-zama txikia izatea.

- Diruzaintzako egoera eroso da. Horri dagokionez, jotzen dugu Unibertsitatea bezalako entitate batek likideziako maniobra tarte nahikoa eduki behar duela aurreikusitako gabeko egoerei aurre egin ahal izateko.

IV.1.2. Adierazle ez finantzarioen bilakaera

Hurrengo taulan erakusten dugu zein izan den izaera ez-finantzarioko adierazleek 2009ko, 2012ko eta 2014ko ekitaldietan (2009-10, 2012-13 eta 2014-15 ikasturteetan) izandako bilakaera.

Informazio ez-finantzarioa	2009/2009-10 ikasturtea	2012/2012-13 ikasturtea	2014/2014-15 ikasturtea
Campusa	2	2	2
Langileak.			
Langileen guztizko kopurua	1.416	1.361	1.329
AZLak, guztira	496	483	473
AZL funtzionarioak/AZLen guztizkoa ratioa	69	70	72
IILak, guztira	920	878	856
IIL funtzionarioak/IILen guztizkoa ratioa	40	40	40
IIL-DOBak, guztira	618	607	599
IIL-DOBak/AZLak ratioa	1,25	1,26	1,27
IIL doktoreen kopurua	552	539	554
IIL doktoreak/IILen guztizkoa ratioa	60	61	65

Informazio ez-finantzarioa	2009/2009-10 ikasturtea	2012/2012-13 ikasturtea	2014/2014-15 ikasturtea
Titulazioak eta ikasle-postuak			
Eskainitako graduako titulazio ofizialen kopurua	2	20	20
Graduko titulazioetan eskainitako ikasle-postuak	280	1.760	1.760
Berritik sartutako graduako titulazioetako ikasle-postuak, matrikula egindakoak	293	1.780	1.704
Unibertsitate masterren kopurua	20	28	33
Titulu berekien kopurua	7	10	12
Ingelesez eskainitako graduako ikasgaien kopurua (zikloa+gradua)	24	121	188
Ikasleak			
Ikasleen guztizko kopurua	8.239	8.055	8.295
Ikasle kopurua (Zikloak)	7.079	2.078	427
Ikasle kopurua (Gradua)	293	4.966	6.638
Ikasle kopurua (Masterra)	597	644	745
Ikasle kopurua (Doktoretza)	270	367	485
Ikasleak (zikloak + graduak)/IIL-DOBak ratioa	11,93	11,60	11,79
Ikasleak (zikloak + graduak)/AZLak ratioa	14,86	14,58	14,94
Nazioarteko Mugikortasunetik heldutako ikasleen kopurua	185	203	207
Nazioarteko Mugikortasuna dela-eta kanpora bidalitako ikasleen kopurua	320	285	332
Graduatutako ikasleen kopurua (Zikloa + Gradua)	1.386	1.152	1.440
Ikerketa			
Ikerketa-zentro eta -institutuak	2	2	4
Ikerketarako katedrak		3	7
Ikerketa taldeak	104	111	106
Ikerketa taldeetako langile ikertzaileak	958	944	883
Irakurritako tesiak	36	42	51
Aitortutako seiurtekoak, SHU	564	663	727
Datu baseetako argitalpen nagusiak	803	885	1.055
Egindako ikerketa kontratuen kopurua (LOUren 83. artikulua).	127	120	116
Lehiaketa izaerako deialdi publikoetan lortutako ikerketa proiektuen kopurua		14	57
Emandako patenteen kopurua		5	3

Oharra. 2014-15 ikasturteko datuak behin-behinekoak dira

Haiek aztertuta, funtsean, honako hauek dira aipagarri:

- Campusa. Unibertsitateak bi campus dauzka, Iruñekoa eta Tuterakoa.
- Langileak.

a) Langile kopurua 87 pertsonatan jaitsi da; hau da, ehuneko seiko jaitsiera izan du. AZLetan, 23 langile gutxiago daude –ehuneko bost–; IILetan, berriz, 64 irakasle gutxiago daude –ehuneko zazpi–.

b) IILen artean, jaitsiera handiena irakasle elkartuen artean gertatu da (406 langiletik 345 langilera) eta unibertsitate-eskolako katedradun eta titularretan (48 langiletik 21 langilera); unibertsitateko katedradunen kopurua, berriz, 16 lanpostutan hazi da, eta unibertsitateko titularrak, azkenik, 15 gutxiago dira.

c) AZLen artean, funtzionarioek guztizkoan egiten duten portzentajea ehuneko 69tik ehuneko 72 pasa da. IILen artean, portzentaje hori ehuneko 40an mantentzen da; horrenbestez, kontratupekoak ehuneko 60 dira. Horri buruz esan beharra daukagu ezen, LOUren 48. artikulua araberan, langile kontratatuek ezin dute gainditu Unibertsitateko IILen guztizkoaren ehuneko 49a.

d) IILen denbora osoko baliokideak (DOB) direnen 19 lanpostu gutxiago dago; hau da, ehuneko hiru jaitsi dira.

e) IIL-DOBek AZLen kopuruan egiten duten ratioa ia ez da aldatu aztertutako aldian, nahiz eta nolabaiteko igoera atzeman den.

f) IIL doktoreek IILen guztizkoan egiten duten portzentajea ehuneko 60tik 65era igo da. Horri dagokionez, Unibertsitateko IILak plantillan antolatzeke jarraibideek ehuneko 70ko gutxienerako bat ezartzen dute portzentaje horretarako helburu gisa.

Unibertsitateko langileek urte hauetan izan duten bilakaeran eragina izan dute, administrazio publiko guztietan gertatzen den bezala, kontratazio eta sustapen berrietarako legezko murriztapenek. Horri dagokionez, 170 irakasle inguru ofizialki kreditatuta daude goragoko kategoria bakoitzeko lanpostuetara aldatzeko; haien hautapen prozesuak, aldiz, ia gerarazita daude, aipatutako murriztapenak direla eta.

- Titulazioak eta ikasle-postuak

a) Aztertutako aldian, titulazioen mapak Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruaren (GHEE) ezarpena nabaritu du; izan ere, horrek, besteak beste, berarekin dakar ziklo-ikasketak (lizentziaturak eta diplomaturak) gradu-ikasketa bihurtzea. 2013/2014 ikasturtean, ofizialki azkendu ziren ziklo-ikasketak, baina horrek ez du esan nahi haietan matrikulatutako ikaslerik ez dagoenik.

b) Graduak titulazioak egonkor mantendu dira aztertutako azken bi urtetan: 20 dira. Gauza bera gertatzen da haietan eskaintako ikasle-postuen kopuruarekin. Azkeneko urtean, matrikulatutako ikasleen jaitsiera txiki bat nabaritu da.

c) Eskaintako masterrak modu aipagarrian igo dira, 20 izatetik 33 izatera pasa baitira. Igoera horren jatorria dira bai GHEEek ikasketetarako planteatzen duen egitura, bai zenbait lanbidetan jarduteko haiek exijitzea ere.

d) Nabarmenezkoa da Unibertsitatea ikasgaiak ingelesez eskaintzeko egin duen ahalegin handia, zeren eta ikasgai horiek ia zortzi halako baitira.

- Ikasleak

a) Unibertsitateko ikasleen guztizko kopurua ia ez da aldatu aztertutako urteetan: 56 ikasle gehiago.

b) Xehakatuta, ikusten dugu zikloko eta graduak ikasleak 307 gutxiago direla eta masterretan eta doktoretzan, berriz, 148 eta 215 ikasle gehiago daudela, hurrenez hurren.

c) Graduak eta zikloko ikasleak IIL-DOBen eta AZLen kopuruan egiten duten ratioa antzekoa da hiru urteetan. 12 ikasle bakoitzeko IIL-DOB bat dago eta 15 ikasle bakoitzeko AZL bat dago.

d) Nazioarteko mugikortasunean, ikusten da jasotako ikasleek gora egiteko joera dagoela eta kanpora bidalitakoak, berriz, nolabait ere egonkor mantentzen direla.

e) Jatorri geografikoari dagokionez, aztertutako hiru ekitaldietan matrikulatutako ikasleen ehuneko 85 Nafarroatik datoz. Atzerritik datozen ikasleen kopuruak, berriz, gora egin du, ehuneko 2tik ehuneko laura, aztertu den azken urtean.

- Ikerketa

a) Ikusten da ikerketa-zentroek eta institutuek eta ikerketarako katedra instituzionalek eta eta enpresakoek nabarmen egin dutela gora.

b) Ikerketa-taldeek kopuruan nolabaiteko egonkortasuna dago, nahiz eta haiei atxikitako langile kopuruak behera egin duen. Langile horietatik, 2014an, ehuneko 72 inguru IILak dira eta

ehuneko 30 inguru ikertzaile kontratatatuak, kolaboratzaileak, laguntzaileak eta doktoretzako ikasleak.

c) Aitortutako ikerketako seiurtekoen kopuruak nabarmen egin du gora aztertutako hiru urteetan: 163 seiurteko gehiago dira. Aitortutako seiurtekoek aitor daitezkeen seiurteko guztietan egiten duten ratioa 0,7koa da 2014an.

d) Halaber, ehuneko 31 egin du gora Unibertsitateak datu base nagusietan (Web of Science eta SCOPUS) dauzkan argitalpenen kopuruak.

e) Egindako ikerketa-kontratuen kopuruari dagokionez (LOUren 83. artikulua), halako beheranzko joera bat topatu dugu. 2014an 1,07 milioiko kopurua zen, eta kontratu horien ehuneko 72 enpresekin egin da.

f) Deialdi publikoen bidez lortutako ikerketa proiektuei dagokionez, aztertutako azken urtean goera aipagarria izan da. Hartara, 2014an, guztira 57 proiektu lortu dira –28 administrazio autonomikoetatik, 26 Estatuko administratziotik eta 3 Europako proiektuetatik– eta emandako dirukopurua 4,22 milioikoa da.

IV.2. KONTUEN GANBERA HONEK AURREKO TXOSTENETAN EMANDAKO GOMENDIOEN BETETZEA.

Ganbera honek 2012ko kontuei buruz eginiko txostenari dagokionez, honako gomendio hauek ezarri dira edo ezartzeko fasean daude:

- *Oroitidazkian dauden auziei buruzko informazioa sartu da –nagusiki, langileen arlokoak dira–, eta, horretarako, kasuko zuzkidura jarri da..*
- *2014ko aurrekontutik, aurrekontuetan lanpostuen zerrendari buruzko informazioa erantsi da.*
- *2014ko oroitidazkiak informazioa dauka betetako lanpostuei buruz, lanpostu hutsei buruz, aldi baterako betetako lanpostu hutsei buruz eta lanpostu efektiboiei buruz.*
- *Aurreikusita dago kontabilitate analitikoa ezartzeko prozesua, bai Unibertsitatera egokitzeko fasean, bai haren mekanizazioari dagokionean, 2016ko ekitaldian amaituko dela.*
- *2016ko aurrekontuaren betetze-oinarriek, bereziki alde aurretiko esku-hartzearen arloan, langile-gastuen gaineko barne kontroleko funtzioak egokitu dituzte.*

Aurreko txostenetan jasotakoetatik, ondokoek jarraitzen dute indarrean:

- *Finantzaketa-eredua. Nafarroako Gobernuak urte anitzeko finantzaketa-eredu bat zehaztea, Nafarroako unibertsitate-erakunde publikoaren finantza-egonkortasuna eta bideragarritasuna bermatzeko. Eredu horrek bide eman behar du gardentasuna, kalitatea, eraginkortasuna eta efizientzia sustatzeko esparru guztietan: irakaskuntza, ikerketa eta gastuen inbertsioen zein diru-sarreraren arloko politikak.*
- *II Len ordainsarien tarte autonomikoa. Nafarroako Gobernuarekin eta Gizarte Kontseiluarekin batera, eta LOUren 69. artikuluan adierazitakoarekin bat, aztertzea aukerarik ba ote dagoen ordainsarien egungo tarte autonomikoaren zehaztapenean kontzeptu osagarriak sartzeko.*
- *LOUren araudia eta II Len plantillari buruzko jarraibideak betetzera jotzea, plantillaren egiturari dagokionez: kontratatutako II Len kopuruak II Len guztizkoan ehuneko 49koa baino txikiagoa izatea, eta III doktoreek II Len guztizkoan ehuneko 70etik gora egitea.*
- *Aurreko prozesuaren itxierarekin bat, komenigarria izanen litzateke Unibertsitateko 2010eko Kontabilitate Publikoko Plan Orokorra ezartzea, bere aurrekontu- eta finantza-jarduera erregistratzeko eta haren jarraipena egiteko; halaber, urteko oroitidazkiaren egitura eta edukia hartan ezarritakoetara egokitu beharko litzuzke. Ezarpen hori egin beharko da horri buruz Nafarroako Gobernuak egiten duen erregulazioari jarraituz.*

IV.3. AURREKONTU-EGONKORTASUNEN ETA FINANTZA-IRAUNKORTASUNAREN PRINTZIBIOAK

Unibertsitate Publikoak, administrazio publikoa den aldetik, aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasuneko printzipioak bete behar ditu. Printzipio horiek LOEPSF legean eta haren garapen arauetan araututakoak dira.

Alabaina, araudi hori bera dela eta, Unibertsitatearen aurrekontu- eta finantza-informazioa Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari “administrazio publikoaren sektorean” sartzen da, eta sektore horren barruan egiaztatzen da, orokorrean, printzipio horien betetzea.

Nafarroako Gobernuak ez du berariaz arautu printzipio horiek Unibertsitateko aurrekontu-kudeaketan nola zehaztu behar diren.

Aurreko premisa horietatik abiatuta, honako zehaztapen hauek egin behar ditugu:

- LOU legea aldatzen duen 14/2012 Errege Lege Dekretuak honakoa ezartzen du arlo hori dela eta:

“...Aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko Lege Organikoa hobeki betetzeko, unibertsitateek honako betebeharrak izan behar dituzte:

a) Urtero gastuaren gehieneko muga bat onetsiko dute, eta ezin izanen da gainditu.

b) Aurrekontuek eta haien likidazioek berariaz aipatuko dute finantza-orekaren eta -iraunkortasunaren betetzea.”

Horixe da unibertsitate publikoetarako berariazko lege-erreferentzia bakarra, baina ez da aipatzen unibertsitateak dagokien autonomia erkidegoko administrazio publikoaren sektorearen barruan daudela.

- 2014an, Unibertsitateak ez du bete gastu ez-finantzarioko gehieneko muga bat onesteari buruzko lege-aurreikuspena. Alabaina, administrazio publikoa osatzen duen entea den aldetik, uler liteke ezen, Nafarroako Gobernuak sektore horretarako egin dituen zenbatespen orokorretan, inplizitu dagoela muga hori, zeren eta Unibertsitatearen funtzionamendurako transferentziaren zenbatekoa edo urteko ekarpena finkatzen baita, eta alde aurretik onesten baitira haren langile-gastuak eta tasa akademikoen zenbatekoa.

- *Unibertsitatearen 2014ko aurrekontuaren betetze-oinarrietan, 1. artikuluan, aipatzen da 2014ko aurrekontuak “LOEPSF legean jasotako finantzen orekarako eta iraunkortasunerako irizpideak betetzen dituela”.* Nafarroako Gobernuak Unibertsitateari jakinarazi zion, halere, onetsitako aurrekontuak defizit bat bazuela, zeren eta finantzabide bezala jasotzen baitzuen gastu orokorretarako diruzaintza-gerakinaren zati bat. Horren guztiaren ondorioz, errektoreak ebatzen bat eman zuen, gastuetarako krediturik ez egoteari buruzkoa, finantzabide hori kentzeko eta aurrekontuan, aurrekontu-kontabilitatearen terminoetan, oreka lortzeko.

- 2014ko aurrekontuaren likidazioak eta Unibertsitatearen kontu orokorraren oroitidazkiak ez dute berariazko aipamenik jasotzen jada aipatutako aurrekontu-orekako printzipioak betetzeari buruz, kontabilitate nazionalen terminoetan, LOUk ezartzen duena betetze aldera. Soilik urteko kontuan, eta adierazle ekonomiko eta aurrekontuko buruzko 4.7 atalean baizik ez da aipatzen finantzaketaren gaitasunaren edo behararen adierazlea, bera aurrekontu ez-finantzarioaren saldoarekin lotuz (diru-sarrera ez-finantzarioak ken gastu ez-finantzarioak, 1,24 milioiko saldo positiboarekin), baina adierazi gabe ea saldo horri doikuntzak egin behar zaizkion ala ez finantzaketaren beharra edo gaitasuna finkatzeko, kontabilitate nazionalen terminoetan.

- Finantza-iraunkortasuna edo Unibertsitatearen zor-bolumenaren gaineko kontrola, gaurko eta etorkizuneko gastu-konpromisoei aurre egin ahal izateko. Abiapuntutzat hartu behar da zor publikoaren gaineko kontrola Nafarroako Gobernuak administrazio publikoaren sektoreko datu bateratuen gainean egiten dela, eta Unibertsitatearako ez dela berariaz helburu zehatzik jarri. Hala eta guztiz ere, kontuan hartuta bai mailegu eta aurrerakin horiek ematen dituzten enteen izaera – administrazio publikoak – bai kopuruaren garrantzi kuantitatibo txikia –2,6 milioi, hau da, diru-sarrera arruntan ehuneko lau–, ondoriozta dezakegu Unibertsitateak finantza-iraunkortasunaren printzipioa errespetatu egiten duela.

- Merkataritza-zorraren iraunkortasuna. Printzipio hori neurtzen da hornitzaileei ordaintzeko batez besteko aldiaren adierazlearen bitartez, egunetan neurtua. Iraunkortasuna dagoela jotzen da aipatutako batez bestekoak ez duenean gaitzen merkataritza-eragiketarako berankortasunari buruzko araudian ordaintzeko aurreikusitako gehieneko epea, zeina, oro har, 30 eguneko baita.

Unibertsitateak 2015era arte Fakturen Erregistroa ezarri ez badu ere –ezinbesteko tresna bat da hori aipatutako batez besteko epea neurtzeko– adierazle horren zenbatespenak egin ditu, fakturen sarrera-datatik edo haien kontabilizazio-datatik abiatuta. Informazio hori, Unibertsitateak webgunean argitaratzen duena, Nafarroako Gobernuari igortzen zaio, administrazio publikoaren ordaintzeko batez besteko epeari buruzko informazioaren barruan sar dezan.

Izan ere, 2014ko irailetik, Unibertsitateak honako balioak dauzka adierazle edo batez besteko horri dagokionez:

2014ko hilabeteak	Ordaintzeko batez besteko epea (egunetan)
Iraila	(10,15)
Urria	(12,69)
Azaroa	(10,10)
Abendua	(17,49)

Adierazlearen balio negatiboak erakusten dute batez beste merkataritza-zorra ordaintzen dela 30 egun naturaleko epea iragan baino lehen. Horrenbestez, Unibertsitateak bete egin du merkataritza-zorraren iraunkortasun-printzipioa.

- Unibertsitateak, 2014an ez du atxiki gabeko diruzaintza-gerakinik edo gastu orokorretarako gerakin negatiborik erabili –magnitute horren balioa 6,28 milioi positiboa da–; horrenbestez, ez zaizkio aplikatu behar LOU legearen 81.5 artikuluan aurreikusitakoak; izan ere, azken horren arabera, balio negatiboa baldin badago, hurrengo ekitaldiko gastuen aurrekontuan gerakin negatibo horren kopuru bera beharrezkoa da.

- Unibertsitatea-Gizartea Fundazioa, hasiera batez, merkatu-unitate gisa sailkatuta dago –hau da, eragin hauek ez da administrazio publikotzat jotzen, baina entitate horiei aplikatzeak zaizkion egonkortasun printzipioak beteko lituzke, zeren eta 2014an ekitaldiko gaitzen positiboa bai baitu.

Geroko gertakari aipagarri gisa, honako hauek azpimarratu behar ditugu:

A) Unibertsitatearen 2015erako aurrekontuak honakoa aipatzen du:

- Nafarroako Gobernuak ekitaldiko aurrekontu-egonkortasunaren helburua banatzeko moduari buruz emandako jarraibideak betetz, Unibertsitateak ezin du aurrekontu horietan aurreikusitako atxiki gabeko diruzaintza-gerakinetik 0,6 milioi erabili.

B) Unibertsitatearen 2016rako aurrekontuak honakoa jasotzen du:

- Jo da Unibertsitatearen gastuaren gehieneko muga, 2016rako, 86,77 milioikoa dela.
- Ekitaldi horretan aurrekontu-egonkortasunaren betetzea aztertzen da, kontabilitate nazionalen terminoetan. Horren emaitza gisa, 0,65 milioiko finantzaketa-behar batzuk –defizita– daudela ezartzen da.

- Nafarroako Gobernuak 2016ko aurrekontu-egonkortasunaren helburua betetzeko Foru Administrazioaren sektore osoan egin duen banaketak aukera ematen du Unibertsitateak finantzabide gisa erabil dezan atxiki gabeko diruzaintza-gerakineko 0,95 milioi, gehienez ere.

Azaldutakoa dela eta, hona gure gomendioak:

- *Nafarroako Gobernuak Unibertsitatearako berariaz arautzea azken horren aurrekontuak egitean –likidazioa eta kontu orokorrak prestatzeari begira– zein diren aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren printzipioen aplikaziotik heldu diren betebeharrak. Besteak beste,*

argitu beharko litzateke nolako tratamendua eman behar zaien diruzaintza-gerakinei, bai eta LO-EPSF legeko 31. artikuluan aurreikusitako gorabeheretarako funtsari ere.

- *Unibertsitateak kontu orokorraren oroitidazkian informatzea egonkortasunaren eta iraunkortasunaren printzipioen betetzeari buruz.*

IV.4. KUDEAKETA-ALOR GARRANTZITSUAK

Beste ezer baino lehen, nabarmendu nahi dugu Gerentziako zerbitzuek eta Kontu-hartzailletza eta Auditoria zerbitzuak egindako lana, zeren eta nabarmen erraztu baitute Kontuen Ganberaren fiskalizazio-jarduketak.

IV.4.1. Langileak

Egindako lanetik, honako hau nabarmenduko dugu:

- LOU legearen 81.4 artikulua ezarri bezala, Nafarroako Gobernuak, 2013ko abenduaren 18ko bilkuran –Unibertsitatearen aurrekontua onetsi baino lehen–, baimendu zuen langile-gastuen 1. kapituluaren kostua, guztira 49,65 milioi egiten duena.

- 2014an, kontratupeko AZLei eta IILEi, Nafarroako Gobernuak gainerako langileei bezala, urteko aparteko soldatak urtarrilera eta uztailean aurreratu zitzaizkien. 2015ean, langile guztiek 2012ko abenduko aparteko ordainsariaren ehuneko 24,04 berreskuratu dute.

- 2014ko eskaintza publikoan lanpostu bakarra dago, unibertsitateko irakasle titular batena; 2015ean, berriz, eskaintzak irakasle titularren hiru lanpostu jaso ditu –txanda irekian– eta hiru katedradun lanpostu –barne sustapenaren bidez–.

- Ikusi dugu Unibertsitateko langileei nominatik kanpoko ordainketa batzuk egin zaizkiela. Hartara, 2014an, epaimahaietako eta esperientziaren ikasgelako parte-hartzeak eta beste dieta batzuk, 178.898 euro egiten dutenak, kontabilitatetik ordaintzen zaizkie zuzenean onuradunei, nahiz eta Unibertsitateak emandako informazio fiskaletan jasota ageri diren.

- AZLen artean, nabarmentzekoa da plantillaz kanpoko lanpostu batzuk badaudela. Kontratazio horiek heldu dira bai bajak ordeztetik, bai beste inguruabar batzuetatik ere; esate baterako, zenbait zerbitzutako errefortzuetatik.

Hartara, 2014ko ekitaldian, guztira 30 pertsona egon dira kontratatuta plantillatik kanpo, eta 0,56 milioiko gastua ekarri dute. 2014ko abenduaren 31n, egoera horretan 26 pertsona daude kontratatuta; horietatik, 20k nolabaiteko egonkortasuna dute enpleguan, zeren eta urtero edo sei hilez behin berritzen baitzaizkie kontratuak eta 2008 eta 2011 bitarteko antzinatasunak baitituzte.

- Ikerketa proiektu jakin batzuetan ikusi da kontratatutako ikertzaileentzako esker-sari batzuk badaudela, proiektuaren exekuzioan zenbait helburu betetzeagatik, betiere horretarako kreditua dagoen bitartean. 2014an guztira ordaindutakoa 20.784 eurokoa da. Esker-sari horiek soilik ikerketaile nagusiak justifikatzen eta finkatzen ditu, ikerketa zerbitzuak onesten ditu eta nominaren bitartez ordaintzen dira.

- Aldi baterako IILak kontratatuzko lehiaketa bidezko deialdien publizitatea, 2013ko abendutik, iragarki-oholera eta Unibertsitateko webgunera mugatzen da. Lehenago, tokiko idatzizko prentsan iragarkiak jartzen ziren; gaur egun, prentsa-ohar bat igortzen zaizkie idatzizko komunikabideei, deialdien iragarpenarekin.

Langileriaren arloko geroko gertakari aipagarri moduan, honakoak daude:

a) Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasle eta ikertzaile kontratatuen araubidea ezartzen duen apirilaren 20ko 36/2009 Foru Dekretua aldatzen duen urtarrilaren 21eko 2/2015 Foru Dekretuaren bitartez, lan-araubideko behin-behineko kontratupeko irakasle doktorearen figura jaso da. Kategoria hori sortu da aipatutako 36/2009 Foru Dekretuan legez aurreikusitako behin betiko esaldura prozedura aplikatzerik ez dagoen bitarteko.

b) Ekainaren 11ko 38/2015 Foru Dekretua, Nafarroako Unibertsitate Publikoan lanaldi osoan aritzen diren irakasle eta ikertzaile funtzionarioen banakako merezimenduei dagozkien ordainsari

osagarrien esleipena arautzen duen apirilaren 20ko 37/2009 Foru Dekretua aldatzen duena. Aldaketa horrekin, banakako merezimendu horien jasotzea lanaldi osoko kontratupeko irakasleei zabaltzen zaie.

Gomendioak:

- *Edozein kontzeptutako ordainketak nominaren bitartez egitea Unibertsitateko langileei, edozein dela ere aurrekontu-kapituluen kontabilitate-egozpena.*

- *Arloari buruzko egungo erregulazioaren barruan, aztertzea IZLen lanpostuen zerrendan sartu ote daitezkeen gaur egun hartatik kanpo dauden lanpostuak, egiturazko beharrezanezi dagozkienak.*

- *Aukera hori berariaz jasotzen duten proiektuen kasuan, jarraibideak ematea kontratupeko ikertzaileei esker-sariak emateari buruzko oinarritzko alderdiak arautzeko.*

IV.4.2. Ikerketa-proiektuen eta -kontratuen kudeaketa

2014an, 4,98 milioikoak izan dira ikerketa-proiektuak eta -kontratuak egitetik heldu diren gastuak, ondorengo xehetasunen arabera (euroak, milakotan):

Ikerketa-proiektu eta -kontratuak	Kopurua	%
Langileak	3.125	63
Ondasun arruntak eta zerbitzuak	1.434	29
Transferentzia arruntak	101	2
Inbertsioak	318	6
Gastuak, guztira	4.978	100

Gastu hori, funtsean, finantzatu da ikerketarako transferentzietatik heldu diren diru-sarrerekin -3,24 milioi-, OTRI kontratuen diru-sarrerekin -1,07 milioi- eta ikerketaren zeharkako kostuen eraginaren bidezko diru-sarrerekin -0,55 milioi-.

Halaber, atxikitako diruzaintza-gerakinaren barruan -6,83 milioikoa dela jo da-, kopuru horren ia ehuneko 80 ikerketa-proiektu eta -kontratuak gastuen finantzaketari atxikia dago.

Eginiko lanaren ondorioz honako alderdi hauek azpimarratu nahi ditugu:

- Ikusten da, oro har, arlo konplexu honetan -bai denbora-hedaduraren berarengatik, bai administrazio-, finantza-, egiaztapen- eta jarraipen-betekizunengatik ere-, kontabilitate- eta aurrekontu-kudeaketa egokia egin dela.

- Horietan inplikaturako langileen ordainsarien ordainketa nomina-zerbitzuak egiten du.

- Diruzaintza-gerakineko kobrantza zaileko saldoen barruan sartzten dira kobratzeko dauden ikerketarako proiektu eta laguntzen aurrerakinak, 1,07 milioi egiten dutenak. Aurrerakin horiekin proiektu horien kudeaketa errazten da, ente finantza-emaileen kasuko diru-sarrerak egiazki jasotzen ez diren bitartean, betiere diru-sarrera horiek behar bezala kreditatuta badaude.

- Unibertsitateak itxitako ikerketa-proiektuei buruz aurkeztutako justifikazioari buruz ente finantza-emaileak egindako berrikuspenak. Hezkuntza Ministerioa eta Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioa, Europako Batzordearen jarduketei erantzunez, aztertzen ari dira funtsean Ikerketa Zientifikoko, Garapeneko eta Berrikuntza Teknologikoko Plan Nazionalak (2008-2011) finantzaturako aipaturako ikerketa-proiektuetatik heldu diren gastuak justifikatzeko unibertsitateek aurkeztutako dokumentazioa.

Berrikuspen prozesu horren emaitza gisa, eta ukitutako proiektu guztiei dagokienez, ministerioek kasuko unibertsitateari eskatzen diote zenbateko batzuk gehi kasuko berandutza-interesak itzultzeko.

Atzemandako anomaliak era askotakoak izaten dira, baina funtsean heldu dira gastu bat hautagarria izatetik ala ez izatetik, gastu jakin bat proiektuarekin duen loturatik, aurkeztutako gas-

tuen xehakatzeko handiagoa eskatzen eta, halaber, aplikatutako irizpideetan aldaketak –ente finantza-emaitzak jakinarazi gabekoak– egitetik.

Ikerketa-zerbitzuaren arabera, errekerimenduen asmo ekonomikoak munta handikoak dira, baina, oro har, unibertsitateak aurkeztutako alegazioekin, nabarmen jaitsi ohi dira.

Gai horri buruz, Unibertsitateko kontu-hartzailetzaren txostenak honakoa dio 2014ko kontu orokorreari dagokienez:

“oroitidazkian informazioa eman beharko litzateke ekitaldiaren itxieran Plan Nazionaleko itxitako ekitaldietako ikerketa-proiektuen errekerimenduen bidezko balizko itzulketen kontzeptua dela-eta zenbatetsitako kopuruari buruz”.

Unibertsitateak emandako informazioaren arabera, honako hauek aipatu behar ditugu:

a) 2014an egindako itzulketak. Ekitaldi horretan, Unibertsitateak 100.343 euro itzuli zituen guztira, gehi 14.926 euro egiten duten berandutza interesak.

b) 2014ko abenduaren 31n, eskatutako kopurua 121.347 eurokoa zen; horietatik, 78.159 euro ordaindu dira.

Azaldutakoa eta ikerketa-proiektuen lagin bati buruz egindako azterketa direla eta, honako gomendio hauek eman behar ditugu:

- *Urtero arrisku eta gastuetarako hornidura zuzkitzea ikerketa-proiektuak finantzatzen dituzten enteei eskatutako kopuruekin. Horri dagokionez, zorrotasunik handiena exijitu beharra dago hautagarria den gastuaren izaera eta kreditatzea direla-eta, bai eta haien justifikazioari dagokionez ere.*

- *Informazio hori ekitaldiko oroitidazki ekonomikoan sartzea.*

- *Behin kontabilitate analitikoa ezarrita, ikerketa-jarduerarekin sortzen diren zeharkako kostuak finkatzea. Halaber, finkatze horrek balioko du kostu horiek ordainarazteko hain zuzen ere kostu horiek berariaz aipatzen ez dituzten proiektu eta kontratuei.*

- *Ikerketa-proiektu eta -kontratuetarako aldi baterako langileak kontratatuzeko prozesuetan aplikatuzkoak diren hautapen-irizpideak homogeneizatzen saiatzea.*

- *Egingarri gertatzen den ikerketa-proiektuen kasuan, aztertzea esparru-akordiorik izapidetu ote daitezkeen, hornitzaileen eta prezioen zerrenda batzuk eduki ahal izateko.*

IV.4.3. Matrikulen bidezko prezio publikoak

Hurrengoak alderdiak azpimarratuko ditugu:

- Unibertsitateak aplikatzen dituen prezio publikoen urteko kopurua honela finkatzen da:

a) Ikasketa ofizialen kasuan, Nafarroako Gobernuak ezartzen ditu. Aipatu beharra dago 2013-14 ikasturterako kopuru horiek ez direla aldatu.

b) Irakaskuntza berekien eta beste prezio publiko batzuen kasuan, oro har, Gizarte Kontseiluak ezartzen ditu.

- Matrikulen kontabilitate- eta aurrekontu-erregistrorako kutxaren kontabilitate-irizpidea erabiltzen da.

- 2014an, aurrekontuen ikuspuntutik, oroitidazkian informatu bezala, matrikula-eskubideak honela banatu ziren: alde batetik titulazio ofizialekoak eta bestetik irakaskuntza berekiak eta bestelako ikasketak.

- Matrikulak SIGMA aplikazioaren bitartez kudeatzen dira, eta *on line* egiten dituzte ikasleek. Aplikazioak berak ordain-agiria edo ordainketa-gutuna sortzen ditu. Ikasleak aukeratzen du finantza-entitateari nola ordaindu: prezio osoa batera edo kosturik gabeko ordainketa zatikatua eginez.

Hartara, 2015-16 ikasturterako honako epe hauek egon dira:

Seihilekoko matrikularen ordainketa zatikatuak	1. epea	Matrikulatutako kredituen kontzeptuari dagozkion prezio publikoen guztizkoaren % 50 eta tasa administratiboaren % 100. Matrikula egin eta 15 egunen buruan.
	2. epea	Matrikulatutako kredituen % 50. -Udazkeneko seihilekoa. 2015eko urriaren 18tik azaroaren 8ra bitartean -Udaberriko seihilekoa. 2016ko apirilaren 4tik 24ra bitartean
Urteko matrikularen ordainketa zatikatuak	1. epea	Matrikulatutako kreditu guztien % 40 eta tasa administratiboaren % 100. Matrikula egin eta 15 egunen buruan.
	2. epea	Matrikulatutako kredituen % 20. 2015eko urriaren 19tik azaroaren 8ra bitartean
	3. epea	Matrikulatutako kredituen % 20. 2016ko urtarrilaren 18tik otsailaren 7ra bitartean
	4. epea	Matrikulatutako kredituen % 20. 2016ko apirilaren 4tik 24ra bitartean

Prozedura hori mesedegarria da ikaslearentzat, baina zailtasun handiak sortzen ditu kudeaketa dela eta.

Matrikulei aplika dakizkiekeen salbuespenak honako arlo hauetatik heldu dira: bekak, familia ugariak –orokorra eta berezia–, desgaitasuna, ohorezko matrikulak eta indarkeria terrorista eta generoko indarkeria. Horri buruz ondokoa adierazi beharra dugu:

a) Ministerioaren bekak zuzenean ordaintzen zaizkio Unibertsitateari bi ordainketa-ebazpenen bitartez –aurrerakina eta likidazioa–, eta aurrekontuaren berariazko kontusail batean erregistratzen dira. Kobrantza horiek Ministerioaren aurrekontuan dirua egotearen arabera egiten dira, eta horrek Unibertsitateak izanen dituen diru-sarreraren aurreikuspenak zailtzen ditu.

b) Familia ugarien eta desgaituen salbuespenei dagokienez, ikasleak inguruabar horiek agiri bidez justifikatu behar ditu matrikula egiteko unean, eta Unibertsitateko zerbitzuek dokumentazio hori indarrean dagoen aztertu behar du.

Egunero, SIGMA aplikazioarekin, finantza-entitateetatik jasotako informazioa prozesatzen da, egindako kobrantzak berdinkatzen dira eta zerbitzu ekonomikoak kontabilizatzen dira. Balizko akatsak eta kontabilitatearen eta SIGMAren arteko aldeak garbitzen dira.

Horrenbestez, matrikulen kudeaketa administratiboa oso konplexua da, berezitasun ugari ditu eta zama administratibo handia dakar.

• Familia ugariengatiko salbuespenak. 2014-16 ikasturtean, salbuespen hori dela eta, honako informazioa ageri da:

Familia ugaria	Onuradun-kopurua	Kopurua
Familia ugari orokorra	1.420	687.589
Familia ugari berezia	222	233.013

Familia ugari orokorren onuradunentzako salbuespenen ehuneko 28 eta familia ugari berezi onuradunen salbuespenen ehuneko 34 bigarren eta hurrengo matrikulen gaineko beherapenei dagozkie. Bekak ematerakoan aplikatzen denaren moduko irizpidea aplikatuta –hau da, salbuespena lehenengo matrikularako izatea soilik– aurreko salbuespen horien guztien zenbatekoak 0,27 milioi eginen luke behera –0,19 eta 0,08 milioi familia ugari orokorren eta berezien kasuetan, hurrenez hurren–.

Bestalde, zehaztu beharra dago Unibertsitateak Ministerioaren eskutik berreskuratzen duela familia ugari orokorrenentzako kenkariei dagokien zenbatekoa, eta behar den kontusailean erregistratzen dela hori.

• Matrikularen itzulketak. 2014-15 ikastaroan, 0,24 milioi egiten duten matrikulak itzuli dira guztira, eta 293 onuradunengan izan dute eragina. Zenbateko horren ehuneko 98 dagokie ikas-

leak galdetegietan bere bekadun izaera adierazi ez dueneko matrikulei, nahiz eta azkenean laguntza hori jaso.

- Matrikulengatik kobratzeko gelditu diren eskubideak. Matrikulak kutxaren irizpidearekin kontabilizatzen direnez, aurreko eskubideak ez daude ez aurrekontuan, ez kontabilitate orokorrean erregistraturik, eta haien jarraipena kontabilitatetik kanpo egiten da.

Lortutako informazioari jarraituz, hurrengo taulan ikusten da zein izan den azken hiru ikasturteetako bilakaera:

Matrikulengatik kobratzeko gelditu diren eskubideak	2012/13 ikasturtea	2013/14 ikasturtea	2014/15 ikasturtea
Matrikula kopurua (Gradua)	76	72	93
Matrikula kopurua (Zikloak)	46	5	8
Matrikula kopurua (Masterrak)	3	0	17
Matrikula kopurua (Doktoretzako ikasleak)	16	21	34
Titulazio ez-ofizialetan egindako bestelako matrikulen kopurua	d. ez	18	57
Zordunen kopurua, guztira	141	116	209
Berankortasunaren guztizko kopurua (eurotan)	96.057	52.391	59.123

Ikusten denez, zenbatekoa nabarmen jaitsi da, ehuneko 38, eta titulazio ofizialetarako ia ez da iristen matrikulengatik aitortutako diru-sarrera guztien ehuneko 0,5era. Hala eta guztiz ere, zordunen kopuruak gora egin du, batez ere titulazio ez-ofizialetan.

Ordainketa-ez horien arrazoa askotarikoa da, eta berankorrengan jarduteko aukerak oso ere mugatuak dira. Hala eta guztiz ere, sistema informatikoak ikasle horiei blokeatu egiten dizkie prestazio akademiko eta administratibo batzuk; esate baterako, ziurtagiri akademikoak eskatzea, espediente-trasladoak egitea, kolaborazio-bekak eskuratzea, balorazio akademikoak edo azterketak eta abar. Azkenean, ikasle berankorrek egintza administratibo edo irakaskuntzakoren bat egin behar duenean, aurrez zor duena ordaintzeko exijitzen zaio.

Gomendioak:

- *Nafarroako Gobernuko ukitutako departamentuekin adostea Unibertsitateak haien datu baseetarako sarbide zuzena izatea, familia ugari izatetik edo desgaitasuna edukitzetik heldu diren salbuespenak egiaztatzeko, eta kentzea gaur egun dagoen betebeharra, ikasleak egiaztariak aurkeztekoa eta Unibertsitateko zerbitzu administratiboek dokumentazio hori gero berrikusi behar izatekoa.*

- *Egiazki egindako kobrantzak urtero berdinkatzea, informazio hori duten bi iturrien artean: ikasleen zerbitzua eta zerbitzu ekonomikoak.*

- *Kontabilitate publikoko plan berri baten ezarpena une egokia izan liteke prezio publikoen kudeaketan sortzapenaren printzipioa sartzeko aukera aztertzeko.*

IV.4.4. Beste arlo batzuk

Honakoak aipatu behar ditugu:

- Ez dira aurkitu 2014an sortutako gasturik 2015eko aurrekontuari egotzi zaionik. Halaber, aurrekontuari aplikatzekoak zaizkion hartzekodunen kontuak hasierako eta amaierako saldo deuseza dauka, eta ekitaldian zehar ez da mugimendurik jaso.

- 2014ko aurrekontuari PFEZaren garaiz kanpoko aurkezpenengatiko errekaru batzuk egozten zaizkio, 59.211 eurokoak. Errekargu horiek sortu dira 2012ko eta 2013ko ekitaldietako bi aldiridagozkien aitortpenak Foru Ogasunean behar baino egun bat beranduago aurkezteagatik.

- Ez da jaso hornitzaileei egindako ordainketetatik heldutako interes-gasturik. Izaera horretako jaso den gastu bakarra da ikerketa-proiektuen itzulketak direla-eta arestian aipatu duguna.

- Transferentzien ondoriozko gastuak. Horien barruan, laguntzen hiru aurrekontu-lerro sartu dira, zailtasun ekonomikoak dituzten ikasleentzat, beren ikasketak egiten jarraitu ahal dezaten: matrikuletarako laguntzak, ikasketetarako laguntzak eta kolaborazio-bekak. Kontzeptu horiek di-rela eta, 2014an, 39.015 euroko gastua egin da guztira. Jarduketa horiek Gizarte Ekintza unitateak koordinatzen ditu.

Unibertsitatearen III. plan estrategikoaren amaierako txostenari jarraituz, haren indarraldian (2011tik 2014ra) 381 ikasleren zailtasun ekonomikoak baloratu dira.

- Kontratazio administratiboa. 2014an, Unibertsitateak 39 kontratu izapidetu ditu guztira; haiek esleitzeko zenbatekoa 1,47 milioi eurokoa (BEZik gabe) da. Kontratu horietatik ehuneko 67 prozedura irekiaren bitartez esleitu dira, eta ehuneko 33, berriz, Europar Batasunean publizitate-rik egin gabeko prozedura negoziatuaren bidez. Haien tipologiari erreparatuta, ehuneko 49 laguntza-kontratuak dira; ehuneko 34 horniduretarako kontratuak dira, eta ehuneko 17, azkenik, obra-kontratuak dira.

- Arrosadiko campuseko kafetegi eta jantoki zerbitzua prozedura irekiaren bitartez esleitu zen 2009ko apirilean zortzi urteko epe baterako, urtean 51.500 euroko kanona ezarriz –KPlaren araberako errebisioarekin– eta 200.000 euroko inbertsioarekin. 2014ko kasuko kontusailean, aurreko kanonaz gainera, 17.804 euroko diru-sarrera bat ageri da, “sukaldea erabiltzeko baimenari” dagokiona: 2013ko azarotik 2014ko maiatzera prestatutako 71.215 jatorduri dagokio, bakoitzarengatik 0,25eko kostua kontuan hartuta.

Diru-sarrera hori sortu zen zeren eta 2012an, enpresa emakidadunak baimena eskatu baitzuen aurreko instalazioak erabili ahal izateko, Unibertsitateaz kanpoko zentroetarako jatorduak prestatzeko; baimen hori 2013ko urrian eman zen, eta horren baldintzetan aurreikusten da egingdako jatordu bakoitzeko Unibertsitateak 0,25 euroko diru-sarrera izanen duela. Baimen hori, hasiera batean, 2013ko abenduaren 31ra arte eman zen, eta aurreikusi zen urtero berri ahal izanen zela, betiere denbora-muga gisa jarrita kafetegien kontratuaren arestian aipatutako epea. Horren arrazoia da “ezin zaiola horrelako baimenik eman beste enpresa bati”.

Gure iritziz, jarduketa horrek emakida-kontratu arautzen duten baldintzak aldatzen ditu, zeren eta bertan sartzen baita sukaldeak beste xede batzuetarako erabiltzea; alderdi hori, ordea, ez zegoen berariaz jasota baldintza-orrietan, eta eragina izan zezakeen lehian. Horrenbestez, uste dugu eskatutako baimena ukatu egin behar zela, edo, bestela, emakidarako beste hautapen prozesu bat planteatu behar zela.

Aipatutako baimen-ematea berrikustea gomendatzen dugu.

- Aldi baterako finantza-inbertsioen (epe finkoko ezarpenak) interesen bidezko diru-sarrerak 84.627 eurokoak izan dira guztira 2014an, aurreko urtean baino ehuneko 29 gutxiago. Behertze horren arrazoia da horrelako finantza-tresnen errentagarritasuna jaitsi egin dela, nahiz eta ezarpenen batez besteko saldoa handiagoa izan den –7,81 milioi; 2013an, ordea, 6,57 milioi izan ziren–. Diru-sarrera horiek kutxaren irizpidea erabiliz erregistratzen dira.

Ezarpen horien 2014ko abenduaren 31ko saldoa, 11,5 milioi, honela xehakatzen da (euroak, milakotan):

Finantza-entitatea	Ezarpen kopurua	Kopurua, guztira	Ezarpenen data	Muga-eguna
B. Santander	4	2.000	2014 urria	2016ko azaroa
Caixa Bank	2	4.500	2014 urria	2015 urtarrila
Rural Kutxa	1	4.000	2014ko abendua	2015 otsaila
Banco Popular	1	1.000	2014ko abendua	2015eko martxoa

- 2014an, aurreko ekitaldietako 1,58 milioiko eskubide aitortuak baliogabetu dira. Kopuru horretatik, 1,43 milioi kanpoko kirol klubek Unibertsitateko kirol instalazioak erabiltzeko prezio publikoetatik heldu dira; hona xehetasunak:

a) 2001etik 2008ra bitarteko ekitaldietan sortutako zorra iraungitzeagatik: 1,31 milioi.

b) Kirol klub bat azkentzeagatik: 2009tik 2012ra sortutako zorra, 0,12 milioikoa.

Kopuru horiek probisioan zalantzazko kobrantzakotzat jota zeuden, eta Unibertsitateak zenbait bidetatik kudeatu zuen haien kobrantza, baina azkenean kobraezin bihurtu dira.

2016ko urtarrilean, Nafarroako Kirolaren Institutuaren eta Unibertsitatearen arteko lankidetzarako esparru-hitzarmen bat sinatu da, federazioek eta klubek Unibertsitatearen instalazioetan kirol jarduerak egiteko.

- Funts bibliografikoak. 2013ko abenduan, Unibertsitatearen ondasunen inbentarioari buruzko araudia aldatu zen, eta ezarri zen funts bibliografikoak, antzinakoak kenduta, ez direla sartuko Unibertsitatearen balantzean eta inbentarioan sartu ezin diren ondasuntzat hartuko direla. Aldaketa horrek berarekin ekarri zuen, oroitidazkian aipatzen den bezala, urte horretako emaitzen kontuan aparteko doikuntza bat egin behar izatea, 26,08 milioi eurokoa.

2014ko emaitzen kontuan zuzeneko amortizazioko idazpen bat egin zen, ekitaldi horretan ondasun horiek aurrekontu-inbertsio gisa sartuta, 1,64 milioiko balioarekin.

- Unibertsitatearen ondare historikoa. Kontu-hartzaitzak egindako lanaren arabera, komenigarria da, alde batetik, ondasun horien kontabilitate-baloraziorako eta -egozpenerako irizpideak homogeneizatzea kultura- eta ekonomia-zerbitzuetan; eta, bestetik, aurkitu ez diren arte-obrak ikertzea –6 obra dira guztira, 17.500 euroan baloratuak–.

- Unibertsitateak, beste finantzabide batzuetatik baliabideak hartzeko beharraz jabetuta, 2014ko uztailan mezenasgo plan bat onetsi zuen, zeinak bideratuko baitu funts pribatuetatik egiten diren ekarpenei aplikatzea Nafarroako Foru Komunitatean Kultur mezenasgoa eta haren zerga-pizgarriak arautzen dituen maiatzaren 16ko 8/2014 Foru Legean jasotako pizgarri fiskalak.

- III. Plan Estrategikoa (2009-2014). 2014ko ekitaldian Unibertsitatearen III. Plan Estrategikoa amaitu da. 2015eko apirilean haren jarraipenari buruzko amaierako txostena⁶ egin da.

Amaierako txosten horretan abiapuntua da Unibertsitateak azken urte hauetako aurrekontuetan eta giza-baliabideetan pairatu dituen murrizketa handiek eragin aipagarria izan dutela planaren helburu estrategikoak lortzeari begira.

Hartara, aipatzen da egoera horrek eragin oso negatiboa izan duela honako ardatz hauetan: baliabideak, hedapena, nazioarteratzea eta prozesuak eta kalitatea. Prestakuntza eta ikerketa ardatzek, oraindik ere egoera horren pean badaude ere, emaitza positiboagoak dituzte.

Ondorio orokor gisa, ongi baloratzen dituzte plangintza estrategiko bat edukitzeak dakartzan emaitza orokorrak eta esperientzia. Halaber, antolamenduaren eta kudeaketaren arloko zenbait alderdi egon dira helburu batzuk guztiz edo partzialki lortzea eragotzi dutenak.

⁶ Txostena Unibertsitatearen Gardentasun Atarian ikus daiteke, Unibertsitatearen webgunean.

Azkenenean, hurrengo taulan, plan estrategikoaren jarraipenerako diseinatu den aginte integraleko koadroaren adierazleek izan duten bilakaera erakusten dugu.

III. plan estrategikoaren aginte integraleko koadroaren adierazleen bilakaera

ARDATZA	KOP.	Adierazlearen izena	Hasierako balioaren denbora-erreferentzia (N)	Balioa Hasierakoa	N+1	N+2	N+3	N+4	Jomuga
Prestakuntza	1	Errendimendu-tasa (%)	2009-2010	% 74	% 74	% 77	% 80	% 82	% 78
	2	Graduazio tasa (%)	2009-2010	% 45	% 49	% 51	% 43	% 61	% 55
	3	Ingelesezkainitako Graduoko ikasgaiak	2009-2010	24	66	96	121	136	100
	4	Ingelesezkainitako Masterreko ikasgaiak	2009-2010	0	8	6	10	9	20
	5	Praktikak egiten dituzten ikasleak eta tituludunak	2009	% 32	% 32	% 32	% 36	% 49	% 47
Ikerketa	6	Produktzio zientifikoa (*)	2010	427	469	443	530	504	448
	7	Doktore-tesiak	08-10 batez bestekoa	36	40	39	47	48	38
	8	Eskatutako patenteak	2010	9	9	14	9	11	14
	9	Ikerketa-jarduerak eraginda sortu diren enpresak (**)	2010	2	2	3	4	4	6
	10	Ikerketa lehiakorretik heldutako diru-sarrerak hartzea (%)	2009	% 0,08	% 0,06	% 0,08	% 0,07	% 0,06	% 0,08
	11	Transferentzia-kontratuetatik heldu diren diru-sarrerak hartzea (%)	2009	% 1,21	% 1,01	% 0,87	% 0,61	% 0,73	% 1,25
Hedadura	12	ALUMNI programa	2009-2010	883	834	613	521	1.316	1.500
Nazioarteratzea	13	Ikasleen nazioarteko mugikortasuna (*)	2009-2010	476	536	424	488	537	548
	14	ILen nazioarteko mugikortasuna	2009-2010	357	400	670	370	506	380
Prozesuak eta kalitatea	15	Ziurtagiri akademikoen kudeaketa elektronikoa (%)	2010	% 0	% 0	% 0	% 0	% 0	% 80
	16	ILen ikerketarako kualifikazioa (%) (*)	2010	% 78	% 78	% 79	% 80	% 82	% 80
Baliabideak	17	Beste finantzabide batzuk (%)	2010	% 4,1	% 4,4	% 5,1	% 4,6	% 4,5	% 4,6

* Adierazleen balioak birkalkulatu dira geroko urteetako datuekin alderaketa homogeneoa egin ahal izateko, eta gauza bera egin da helmugaren balioekin.

**n+1etik n+4ra bitarteko urteetako datuak datu metatuak dira, zeren eta helmugaren balioak 2011tik 2014ra bitarteko urteetan espero ziren datuak biltzen baititu.

Gaur egun, Unibertsitatearen IV. plan estrategikoa prestatzeko lanetan hasi dira. Plan horrek gida moduan balio behar du datozen urteetan Unibertsitateak ezarri beharreko eredia, egitura eta ikasketak diseinatzeko.

- Unibertsitatearen irakaskuntza berekiak. Honako hau da ikasketa mota horien tipologia:

a) Masterreko titulu berekiak, espezializazio diplomakoak, unibertsitate-adituarenak, unibertsitate-hedaduraren diploma eta unibertsitate-hedaduraren ziurtagiria.

b) Prestakuntza jarraituko eta irakaskuntza berekietako beste modalitate batzuk, titulu berekiri ez dakartenak: espezializazio ikastaroak, ikastaroak eta mintegiak.

Irakaskuntza horien kudeaketaz Unibertsitatea bera arduratzen da, edo, bestela, bere Fundazioa. Prestakuntza mota horrek bere burua finantzatu behar du, kasuko prezio publikoekin edo/eta erakunde publiko eta pribatuen ekarpenekin; gastuen barruan, ehuneko 10eko kanon bat ageri da, Unibertsitatearen edo, kasua bada, Fundazioaren gastu orokorretarako ekarpen gisa.

2013-2014 ikasturtea dela eta, honako informazio hau dago Fundazioak kudeatutako irakaskuntza berekiei buruz:

a) 14 prestakuntza-ekintza egin dira: zazpi titulu bereki eta zazpi espezializazio ikastaro. Ikasle falta zela eta, lau ekintza deuseztatu ziren.

b) 2.726 irakastordu eman ziren; haietatik, ehuneko 52 Unibertsitateko irakasleek garatu zituzten.

c) Ekintza horietan 314 ikasle matrikulatu ziren guztira; horietatik, ehuneko 68 emakumeak ziren.

d) Jasotako prestakuntza dela-eta ikasleek izan duten asebetetze orokorra hamar puntutatik zazpi eta zortzi artekoa da.

e) Ekintza horien emaitza ekonomiko positibo orokorra 70.784 eurokoa izan da.

Fundazioak zuzenean ordaintzen du aurreko irakaskuntza horietan parte hartzen duten Unibertsitateko IILen lana. 2014an, 87 irakasle aritu ziren irakaslan horietan, 191.048 euro egiten duten lansariekin. PFEZa dela-eta ehuneko 15eko atxikipena egin zitzaien.

Unibertsitateko IILek irakaskuntza berekietan duten presentziari buruzko geroko egitate gisa, aipatu behar dugu Unibertsitatearen Gobernu Kontseiluaren 2015eko martxoaren erabaki batez, aldatu egin direla Nafarroako Unibertsitate Publikoko unibertsitate masterren irakaskuntzei eta irakaskuntza berekiei buruzko arauen zenbait alderdi. Aldaketa horretan ezartzen da, besteak beste, aipatutako irakaskuntza horietako irakastorduen gutxienez ere ehuneko 30 Unibertsitateko bertako irakasleek emanen dituztela (lotura iraunkorra duten irakasleen irakastorduak gutxienez ere ehuneko 10 izanen dira), eta gehieneko arduraldia ikasturte bakoitzeko 100 irakastordukoa izanen dela; halaber aipatzen da errektorearen ebazpenez, Graduondoko Ikasketen Batzordeari entzunda, urtero finkatuko dela irakastordu bakoitzeko eta beste arrazoi batzuegatik (tutoretzak, azterketak...) jaso beharreko ordain ekonomikoa.

• Unibertsitatearen ikerketa-institutuak. Institutu horiei buruzko arau erregulatzailer orokorra 2014ko maiatzean onetsi zen. Arau horren 1. artikuluan, honakoa esaten da institutu horiei buruz:

“Unibertsitatearen egitura bereki bezala egituratzen dira, nortasun juridiko berekirik gabe; ikerketarako euskarri gisa balio dutenak eta ikertzaileen elkarte gisa definitzen direnak, eta helburu dute ikerketa zientifiko, tekniko, sozial edo ekonomikoa jakintzaren esparru jakin batean bultzatu eta sustatzea edo arazo sozial eta ekonomikoei ikuspegi akademikitik konponbidea aurkitzea.”

Haien finantzaketa, nagusiki, beren ikertzaileek lehia bidezko deialdietan lortutako funtsen bidezkoa izanen da, edo entitate publiko eta pribatuekin egindako hitzarmen eta kontratuen bidezkoa.

Zehaztu beharra dago institutu horiek ez datozela bat LOU legearen 7. artikuluan araututako ikerketarako unibertsitate-institutuekin.

Gaur arte, honako institutu hauek sortu dira:

a) InaMat (Institute for Advanced Materials): material aurreratuen arloko jakintza sortzen eta teknologiak garatzen dihardu. Institutuaren lana, funtsean, honako hauetara bideratuta dago: sintesian oinarritutako estrategiak, material berrien prestaketa eta haien ezaugarrien azterketa dimentsio makroskopikoan, pelikula meheetan eta egitura nanometrikoetan.

b) ISC (Institute of Smart Cities): ingurune adimendunen diseinura, analisisira, ezarpenera eta optimizaziora bideratuta dago.

c) INARBE (Institute for Advanced Research in Business and Economics): eragile ekonomiko eta sozialek hartzen dituzten erabakiei eta haiek enpresen zereginetan eta gizarte ongizatean dituzten eraginei buruzko ikerketara bideratua. Azken xede gisa du ezagutza berria sortzea eta enpresek eta gizarteak, ingurune orokor batean, aurkitzen dituzten lehia-erronkak gainditzeko laguntzen duten ideiak eta proposamenak zabaltzea.

Horietako bakoitzerako, 2015ean, barne-funtzionamenduko erregelamendu bat onetsi da.

IV.4.5 Unibertsitate-Gizarte Fundazioa

Enpresa pribatu batek Fundazioaren urteko kontuei buruzko finantza-auditoria egin du, eta al-deko iritzia edo aldaketarik gabekoa eman zuen. Horri dagokionez, komenigarria litzateke Unibertsitatearen oroitidazkian sartzea, finantzen egoera-orriekin batera, txosten horretan ageri den iritzia.

2014an, Fundazioak honako magnitude nagusi hauek izan zituen bere jarduera ekonomiko-finantzarioan (aurreko ekitaldikoekin ere alderatu dira): (euroak, milakotan, salbu eta langileen batez besteko kopurua).

Fundazioa, 2014	2013/12/31	2014/12/31
Funts berekiak	832	851
Epe luzeko zorrak (jasotako finantzak)	1	1
Pasibo arrunta	1.972	1.828
Epe luzeko finantza-inbertsioak (bestelako finantza-aktiboak)	1.300	1.300
Diruzaintza	848	541
Jardueraren beraren ondoriozko diru-sarrerak	6.792	6.774
Unibertsitatearen gomendioaren aplikaziotik heldu diren diru-sarrerak	406	395
Langile-gastuak	2.106	2.136
Ekitaldiko emaitza	-133	19
Enplegatu kopuruaren batez bestekoa	45,42	45,42

Fundazioak 2014an bere alorretan erabilitako baliabideak (gastuak gehi inbertsioak) hurrengo taulan erakutsi ditugu (euroak, milakotan):

Alorrak	Kopurua
Enplegua	4.745
Prestakuntza	765
Hizkuntzak	756
Zuzendaritza eta euskarri teknikoa	371
I+G zentrorako laguntza	76
Beste batzuk	106
2014an erabilitako baliabideak, guztira	6.819

Unibertsitateko errektorearen ebazpen baten bidez, 2014rako, Fundazioari honako jarduera hauek egiteko gomendioa eman zitzaion:

- Enpleguaren arloa: Laneratzeko jarduketak eta laguntza-jarduketak.
- Prestakuntza arloa: praktketan diharduten tituludunentzat eta Unibertsitateak enkargatutako ekintzetarako (irakaskuntza berekiak).
- Hizkuntzen arloa: Hizkuntzen Goi Mailako Ikastegia eta hizkuntzetako ikastaro orokor eta berriazkoen antolaketa.
- Elektronikaren eta Komunikazioaren arlorako I+G Zentroaren kudeaketa.
- Unibertsitateko Lagunen eta Ikasle Ohien Alumni Programa.
- Nazioarteko Sustapena. Unibertsitateak Txinan dituen harremanen sustapena, unibertsitateko titulazioak sustatzeko eta ikasleen eta irakasleen mugikortasuna bideratzeko.

Gomendio horren aurrekontuak 457.008 euroko zenbatekoa zuen. Ebazpen horren eranskinetan honako hauek arautzen dira: prozedura, baldintzak, kudeaketa ekonomikoa eta 2014an egindako gastuen likidazioa. Halaber, aipatzen da Fundazioak bere gain hartzen dituela gomen-

dioan jasotako jardueretatik heldu diren diru-sarreraren bilketa (funtsean, titulu berekiei, hizkuntzei eta Alumni programari dagozkionak): haien zenbatekoa gero Unibertsitatearen beraren kontuetan sartuko da.

Gastuetarako krediturik ez egotearen aplikazioaren emaitza gisa, azken zenbateko horrek 58.447 euro egin zuen behera.

Unibertsitateari 2014an likidatutako gastua 392.289 eurokoa izan da. Hona hemen xehetasunak:

Arloa	Hasierako aurrekontua	Aurrekontu doitua	Likidatutako gastua	%
Hizkuntzak	249.711	220.670	220.670	88
I+G zentroa	100.770	89.915	89.915	89
Alumni programa	82.127	63.546	63.546	77
Nazioarteko sustapena	24.400	24.400	18.158	74
Guztira	457.008	398.531	392.289	86

Aurreko gastuaz gainera, Unibertsitateak, gomendioko kontusailen kargura, 3.000 euroko gastu gehigarri bat hartu zuen, software bat ordaintzekoa.

Fundazioari gomendatutako jarduerengatik Unibertsitateak aitortutako diru-sarrerak 1,09 milioiok izan dira; hona xehetasunak:

Diru-sarrerak	Kopurua
Titulu berekietako matrikulak	560.298
Hizkuntzen Goi Mailako Ikastegia	475.673
Alumni programa	27.674
Bestelako diru-sarrerak	26.145
Guztira	1.089.790

IV.5. GENERO BERDINTASUNEN POLITIKAK

IV.5.1. Unibertsitateari aplikatzekoa zaion arau-esparru orokorra

Printzipio juridiko unibertsala da emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarena, eta naziarteko testu askotan aitortua dago. Bada, halako testuen artean nabarmendu behar da emakumearen aurkako bereizkeria-mota guztiak ezabatzeko Konbentzioa, Nazio Batuen Biltzar Orokorra 1979an onetsi eta Espainiak 1983an berretsitakoa.

Espainiako Konstituzioaren 14. artikulua berdintasunerako eta sexuan oinarritutako bereizkeriarik ez izateko eskubidea aldarrikatu du. 9. artikuluko 2. idatz-zatiak sendotu du botere publikoek inguruabar zehatzak sustatzeko daukaten betebeharra, gizabanakoaren eta berak osatzen dituen taldeen askatasuna eta berdintasuna benetakoak eta eragingarriak izan daitezen.

Emakumeen eta gizonen egiazko berdintasunerako 3/2007 Lege Organikoak gure herrialdera aldatzen ditu arloari buruzko Europako bi zuzentarau. Lege organiko horrek goi mailako hezkuntzari buruzko berariazko artikulua bat jasotzen du; honako hau jasotzen du, laburbilduta:

- Goi-mailako hezkuntzan, administrazio publiko eskudunek gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren esanahiari eta norainokoari buruzko irakaskuntza eta ikerketa suspertuko dituzte.

- Bereziki, eta helburu horrekin, hurrengoak sustatuko dituzte:

a) Ikasketa-planetan, bidezkoa denean, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloko irakaspenak sartzeari.

b) Graduatu-ondoko bereziak sartzeari.

c) Gaietan espezializatutako ikasketak eta ikerketak egitea.

- Gainera, legeak botere publikoek jarduteko printzipio eta irizpideak jasotzen ditu; honakoak azpimarratu daitezke, besteak beste:

a) Emakumeen eta gizonen partaidetza orekatua hauteskunde-zerrendetan eta erabakiak hartu behar direnean.

b) Erantzukizuneko karguen eta irakaskuntza zentroen kontrol- eta gobernu-organoen presentzia orekatua izatea.

c) Administrazioaren esparruan hizkera ez-sexista ezartzea.

d) Enplegu publikora sartzeko oztopoak eta lanbide-karreran emakumeen eta gizonen arteko bereizkeriak dakartzatenak; bizitza pertsonala, familiarra eta lanekoa bateragarri egiteko oztopoak kentzea; berdintasunerako prestakuntza jarraitu ematea; hautapen eta balorazio organoen presentzia orekatua izatea; sexu-jazarpenetik eta sexua dela-eta gertatutako jazarpenetik babes-teko neurriak; eta sexua dela-eta ordainsarrietan zuzeneko nahiz zeharkako bazterkeriak ez gertatzeko neurri eraginkorrak.

- Azkenik, lehenengo xedapen gehigarrian, honakoa ezartzen da:

“...Lege honen ondoretarako, osaera orekatu gisa ulertuko da emakumeen eta gizonen presentzia, noiz eta, kasu bakoitzean erreferentziatzen hartzen den osotasunean, sexu jakin bateko pertsonak ez direnean 100eko 60 baino gehiago, ezta 100eko 40 baino gutxiago ere”.

Apirilaren 12ko 4/2007 Lege Organikoak, Unibertsitatei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoa aldatzen duenak, berdintasun politiken inguruko zenbait alderdi sartzeari.

Besteak beste, ondokoak azpimarratu ditugu:

- Hamaikagarren xedapen gehigarria:

“...Unibertsitateek, beren antolaketa-egituren artean, berdintasun unitateak izan behar dituzte, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren printzipioarekin zerikusia duten eginkizunak bete behar dituzten”.

- 10. idatz-zatia, gobernu- eta ordezkari-organoei buruzkoa:

“...estatutuek ezarriko dituzte aplikatzekoak diren arauak; horietan sustatuko da organo kolegiatuetan emakumeen eta gizonen presentzia orekatua egotea”.

- 42. idatz-zatia, ikerketari buruzkoa:

“Sustatuko da ikerketa-lantaldeek beren lanbide-karrera gara dezatela beren esparru guztietan emakumeen eta gizonen presentzia orekatua sustatuz”.

- 64. idatz-zatia, irakasle-lanpostuetara sartzeko lehiaketari buruzkoa:

“Unibertsitate bakoitzaren estatutuek arautuko dute deitutako lanpostuetarako hautapen-batzordeen osaketa eta, nolabait ere, bermatuko dute kide guztiek behar den gaitasun zientifiko eta irakaskuntzakoak dutela. Osaketa horrek kideen inpartzialtasun eta profesionaltasun printzipioak beteko dituzte, eta bilatuko du batzordekide diren emakumeen eta gizonen presentzia orekatua, salbu eta behar ezinezkoa denean, bezala azaldutako arrazoi oinarritu eta objektiboak tarteko”.

Nafarroako Foru Komunitatearen esparruan, nabarmendu behar dugu azaroaren 28ko 33/2002 Foru Legea, emakumeen eta gizonen aukera berdintasuna sustatzeko. Foru lege horrek, izan ere, emakumeen presentzia sustatzeko sentsibilizazioaren eta parte-hartze sozial eta politikoaren arloko helburuak eta neurriak ezartzen ditu. Foru lege horrek Nafarroako antolamendu juridikoaren azterketa jasotzen du, honako helburu honekin: aldaketak egitea gizon eta emakumeen ar-

teko aukera berdintasunaren gaiei buruz Europako Batasunak emaniko zuzentarauen eta nazi-oarteko komunitateak emaniko arauen arabera. Arau hori betetze aldera, foru legea geroztik argitaratu den araudiari egokitu beharko zaio.

Halaber, Foru Komunitateko emakumeen eta gizonen aukera-berdintasunerako lehen planak (2006-2010) berariaz aipatzen du unibertsitate-esparruan berdintasun-printzipioa sartzeko beharra, honako neurri hauek ezartzen baititu:

- Ikasketa planak berrikustea, generoko azterketa erantsiz ikasketa gai guztiei, eta bereziki irakasleen prestakuntzarekin zerikusia dutenetan eta gradu ondoko ikastaroetan.
- Zientzien eta diziplina zientifikoek erakuntzan ikuspegi berri bat gehituko duen tresna gisa, generoko azterketa barne hartuko duten azterlan eta ikerketak sustatzea.
- Emakumeen azterlanen datu base bat garatzea, kontsulta eta ezagutza errazteko.
- Jakintzaren arloetan emakumeek egindako ekarpenak jasoko dituzten ikerlanak sustatzea.

Halaber, Nafarroako Berdintasunerako Institutuak gidaliburu bat argitaratu du, generoko ikuspegiak sartzeko Foru Komunitateko administrazio publikoek ematen dituzten diru-laguntzetan eta egiten dituzten kontratuetan.

IV.5.2. Unibertsitatearen jarduketak

A) Estatutuak

Unibertsitatearen estatutuetan 2011n egin zen aldaketaren ondorioz, honako agindu hauek sartu ziren estatutu horietan:

- Zioen azalpena: Unibertsitatei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoak estatutu prozesu berria hasi du Espainiako unibertsitate komunitatean. Nafarroako Unibertsitate Publikoak, lege-aginduak bultzatuta, egokiera baliatu du bere egitura eta gobernuari buruz hausnartzeko, baita irakaskuntza jardueri buruz eta unibertsitateko beste gai batzuei buruz ere, guztiak ere, askatasunaren, berdintasunaren eta aurrerapenaren zerbitzuan den gizarte eraldakuntzarako tresna izateko betebeharrak funtsezkoari begira.

- 3. artikulua. Eginkizunak hobeki betetzeko eta berdintasunaren, parte-hartze demokratikoa- ren, gardentasunaren eta irakaskuntza askatasunaren printzipioetan oinarrituta, Nafarroako Unibertsitate Publikoak...

- 49. artikulua. 1. Klaustroan, ikastegietako batzordeetan, saileko kontseilu eta unibertsitateko ikerketa institutuetan eta gainerako gobernu eta ordezkari organoetan unibertsitate komunitateko arloetako ordezkariak hautatzeko, Unibertsitatei buruzko Lege Organikoan, Estatutu hauetan eta unibertsitate hauteskunde erregelamenduan xedatutakoari jarraituko zaio. Organo horietan emakumeak gizonak beste izaten lagunduko da.

- 67.1. artikulua. Unibertsitateak, gainera, sustatuko du ikerketa-lantaldeek beren lanbide-karrera gara dezatela beren esparru guztietan emakumeen eta gizonen presentzia orekatua sustatuz.

- 80.5. artikulua. Unibertsitateko irakaskuntza-kidegoetako lanpostuetara sartzeko lehiaketetako batzordeak direla eta:

“...Batzordeak emakume eta gizon kopuru orekatuak izan beharko ditu, behar bezala justifikatutako arrazoi sendoak eta objektiboak direla medio hori ezinezkoa denean izan ezik...”

- Langileen kontratazioa: 84. eta 111. artikuluek ezartzen dute ezen, IILen eta AZLen kontratazioak, hurrenez hurren, berdintasun, merezimendu eta gaitasuneko konstituzio-printzipioak errespetatuz egiten direla. Printzipio horiek, 141. artikuluari jarraituz, berdin aplikatuko zaizkie Unibertsitateak kapital sozialaren edo ondare-funtsaren partaidetzaren gehiengo dueneko entitate juridiko-pribatuak egiten dituzten langileen kontratazioei.

- Seigarren xedapen gehigarria. Nafarroako Unibertsitate Publikoak, bere eskumenen esparruan, bakoitzari dagozkion askatasuna eta berdintasuna benetakoak eta eraginkorrak izateko

baldintzak sustatuko ditu, eta, zehazki, erabat bete daitezzen eragozten duten traba guztiak kenduko ditu, eta unibertsitate komunitateko kide guztien partaidetza erraztu.

- Zortzigarren xedapen gehigarria. Nafarroako Unibertsitate Publikoak, bere antolaketa-egituren artean, berdintasun unitateak izanen ditu, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren printzipioarekin zerikusia duten eginkizunak bete ditzaten.

- Bederatzigarren xedapen gehigarria. Unibertsitateko kide bakarreko organoei, haien titular eta kideei eta unibertsitate-komunitateko kideei gaztelaniaz emandako deiturak, baita estatutu hauetan gaztelaniaz genero maskulinoan jarritako beste edozein deitura ere, genero femininora aldatutzat joko dira, deitura hartzen duen pertsona emakumezkoa denean.

B) Berdintasun Unitatea

2009an, Berdintasun Unitatea sortu zen, aurreko lege-jarraibideei eta Unibertsitatearen II. plan estrategikoari jarraituz. Unitate horrek, giza baliabide gisa, teknikari bakar bat dauka. Honako eginkizun hauek dauzka esleituta:

- Gaur egun unibertsitatearen esparruan dauden generoko desberdintasunak ikusaraztea.
- Emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzea Unibertsitatearen jarduketa-alor eta -esparru guztietan honako hauek eginez:

- a) Unibertsitateko kudeaketa/zuzendaritza organoetan generoko parekidetasuna sustatu.
- b) Emakumeei IIL gisa edo AZL gisa beren lanbide-karrera garatzea eragozten dieten oztopoak kendu.

- c) Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren printzipioaren norainokoa eta esanahia unibertsitate-erkidego osoan ezagutzera eman daitezzen sustatu.

- d) Hizkera ez-sexistaren erabilera sustatu.

- e) Generoaren arloko prestakuntza eta ko-hezkuntza sustatu eta, halaber, berdintasuna bideratzen duten gainerako erakunde eta enpresekiko ikerketa- eta lankidetzaproiektuetan parte hartu.

- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-printzipioaren egiazko aplikazioa zaindu.
- Generoko indarkeria, jazarpena eta generoaren ondoriozko gehiegikeria unibertsitate-esparrutik desagerrarazten lagundu.

Berdintasun Unitateak toki bat dauka Unibertsitateko webgunean, eta bertan alderdi orokorrei eta egiten dituen jarduketa guztiei buruzko informazioa dago.

Unitateko arduradun teknikoak emandako informazioaren arabera, honako hiru alorrak izan ditu lanerako ardatz:

- Ikasleak: Sentsibilizazio jarduketak (indarkeriaren prebentzioa, estereotipoak, jazarpena...) eta jarduera, tailer eta hitzaldien antolaketa.

- IILak: funtsean, irakaskuntzan genero-ikuspegia sartzea. Horretarako, ikastaroak antolatzen ditu, unitate didaktikoak egiten edo banatzen parte hartzen du eta genero-ikuspegia duten gradu-amaierako eta master-amaierako lanak eta ikerketa-proiektuak egitea sustatzen du.

- AZLak: material grafikoak, kartelen, inprimakien, eskabideen eta abarrekoak egiterakoan hizkera inklusiboa erabiltzeko kontzientziaztea. Halaber, lanposturako berdintasunaren inguruko eta bateragarritasun neurriei buruzko prestakuntza ematen da.

Halaber, hemendik gutxira Unibertsitateko jazarpenaren aurkako protokolo bat onetsiko da, estamentu guztietan nahitaez bete beharrekoa.

C) Berdintasun-planak

Aurretik, 2007an, Unibertsitateko genero-desberdintasunari buruzko diagnostiko bat egin zuen ikerketa-talde batek. Txosten hori 2008an eguneratu zen.

Azterlan horien emaitza gisa, Unibertsitateko lehen berdintasun plana egin zen. Plan horrek bost jarduketa arlo ezartzen ditu, eta horietako bakoitzerako helburuak finkatu eta ekintzak proposatzen dira; honako hauek dira arloak: Unibertsitatea gizonen eta emakumeen berdintasunaren arloko jokabide egokien adibide; IILak; AZLak; ikasleak, eta unibertsitateko botere-organoak.

Berdintasun plan hori garatzeko, ondoz ondoko hiru ekintza-plan egin dira 2008-2009, 2009-2010 eta 2010-2011 aldiatarako. Azken ekintza planetik, honako neurri operatiboak nabarmendu behar ditugu:

Komunikazio instituzionalaren inguruko politikan genero-ikuspegia finkatzearen helburuari begira: Komunikazio Zerbitzuarekin eta Idazkaritza Nagusiarekin plangintza bat egitea, hizkera inklusiboa ezartzeko estrategia bat egiteko, eta laguntzako materialak egitea, bai eta txantiloak ere –hizkera ez-sexistarekin– IILek eta AZLek erabiltzen dituzten inprimaki eta dokumentu garrantzitsuenetarako; besteak beste, matrikulako galdetegiak, titulazio-gidak, oposizioetarako edo/eta zerrendetarako deialdiak, ziurtagiriak eta abar.

Generoko ikuspegiaren zeharkakotasuna sustatzea goi mailako hezkuntza esparru europarreko graduako titulazio berrien diseinuan, exekuzioan eta ebaluazioan: azterlan bat egitea, Unibertsitateko Gizarte Laneko Sailarekin batera, generoko ikuspegia sartzeari buruz bai Gizarte Laneko graduari, bai Unibertsitateak eskaintzen dituen gainerako graduari eta graduondoko ikasketetan ere. Lan hori 2012an amaitu zen, eta honako ondorio nagusi hau izan zuen: *“aurreko egoeraren (diplomatura eta lizentziaturak) eta egungoaren (graduak) arteko alderaketari dagokionez, esan beharra dago generoko zeharkakotasuna dela eta ez dela hobekuntzarik egon ez Ingeniaritza Eskoetan: ETSIA eta ETSIIT, ez Ekonomia eta Enpresa Zientzien eta Zientzia Juridikoen fakultateetan, ez eta Osasun Ikasketen Unibertsitate Eskolan ere. Besterik da Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatean gertatutakoa, non emaitza positiboak izan baitira”*.

Hobekuntza-proposamen gisa, honakoak aipatzen dira:

- *“Gradu desberdinetan dagoen errealitateari begiratzea: irakasle eta ikasle gehienak emakumezkoak dira erizaintzaren esparruan, esate baterako, edo gizona ingeniariaren esparruan, esate baterako. Hori dela eta, ulertu behar da lanbideak ez direla neutroak eta, horrenbestez, balizko ekintza batzuk hartu behar dira kontuan; esate baterako, generoko identitateekin lan egitea (zainketak vs hornikuntza) edo ekintza positiboak garatu behar dira (emakumeen presentzia sustatzeko tradizionalki maskulinoak izan diren jakintzetan, edo gizona berriz, tradizionalki femeninoak izan diren lanbideetan).*

- *Ikasgaietan erabiltzen diren eskuliburuak eta dokumentazioa aztertu eta gaurkotzea, zeren eta batzuetan defasatuta baitaude. Horri gehitu beharra zaio batzuetan materialak eta edukia ez zaizkiola aplikatzen dagoen errealitateari, zeren eta ez baitira kontuan hartzen azken urteetan gizartearen izan diren aldaketak (emakumeak ordainpeko lanetan sartzeari, berdintasuna lortzeko funtsezkoak izan diren lege aldaketak...).*

- *Gai eta alderdi sozial batzuk graduari ikasgaietan sartzeko betebeharrari erantzutea, garrantzi berezia baitute.*

Halaber, aipatu behar dugu 2013-2014 ikasturtean “Generoko aditua” titulu berekia irakasten ari dela.

D) Unibertsitatearen III. Plan Estrategikoa (2011-2014)

Unibertsitatearen III. plan estrategikoan berdintasunari buruzko honako aipamen hauek egiten dira:

- *Balioen artean: “Aniztasunean elkarrekin bizitzea: Honako hauen moduko balioak sustatzea: pertsonetikiko eta ideiekiko errespetua, tolerantzia, elkartasuna, bakearen kultura, pentsamendu-askatasuna, elkarriketa, generoko berdintasuna eta kulturen arteko integrazioa”.*

- Unibertsitate-hedadurari dagokion ardatzaren helburuen taulan, honako hauek ageri dira:

1. helburu estrategikoa. *“Unibertsitate-konpromisoa eta -erantzukizun Sozialaren Campusaren sorrera bultzatzea”.*

1.3 helburu operatiboa. *“Aurrera egitea unibertsitate irisgarri, berdinzale eta solidarioaren garapenean”.*

1.3.1 ekintza *“Generoko berdintasuneko urteko planak garatu eta aplikatzea”.*

- Iberus Campusaren helburuen artean, C.2.1 helburuak hauxe dio: *“Campusean generoko berdintasunaren behatokia garatzea, eta bertan sartzea Campusaren berdintasun planaren gauzatzea eta jarraipena”.*

Aipatutako plan estrategikoari buruzko amaierako txostenak dio zailtasun ekonomikoek zaildu egin dutela aurreko helburu estrategikoak lortzea. Eta hala:

- Unibertsitate-erantzukizun Sozialaren arlo bat sortu da, baina ez da unibertsitate-erantzukizun sozialari buruzko txostena onetsi.

- Berdintasunaren berariazko arloan, *“berdintasun programei lotutako ekintzak geraturik daude”.* Hartara, ekintza programak aplikatzen dira 2011n onetsitakoa luzatuz, eren eta ezin izan baita plan berririk egin dauden baliabideekin; hala eta guztiz ere, plan horretan bildutako ekintzak egokitu eta gaurkotzera jo da.

- Berdintasunari buruzko adierazleei dagokienez, hauxe dio aipatutako amaierako txostenak:

a) Aplikatutako berdintasun-neurrien kopurua: batez beste 14 neurri plan estrategikoak indarra izan duen lau urtetako bakoitzean. Aurreko lerrokadetan aipatutakoez gainera, nabarmendu behar dugu ludotekan egin den jarduketa, ospakizunak direla-eta egindako deklarazio instituzionalak (martxoaren 8an eta azaroaren 25ean), Iberus Campuseko berdintasunaren behatokiaren zirriborroaren prestaketa, gela osasungarriaren proiektua, datu-bilketa eta estatistikak, eta abar.

b) Berdintasunari buruzko ikastaro eta tailerren kopurua: urtean sei ikastaro inguru egin dira, eta urtean 200 pertsonak hartu dute parte haietan.

Atal honen amaierako laburpen gisa, esan dezakegu Unibertsitateak bere estatutuetan berdintasunaren arloko legezko aurreikuspenak txertatu dituela, eta jo duela gai hori estrategikoa dela bere jarduerak garatzeko, eta ahalegin handiak egiten ari dela irakaskuntzaren, administrazioaren eta ikasleen arloetan.

IV.5.3. Emakumeek eta gizonek Unibertsitatean duten presentziari buruzko datu batzuk

II Lak eta AZ Lak eta ikasleak orokorrean hartuta, honako taula honetan ageri da 2014ko ekitaldian izan den generoaren araberrako banaketa:

Estamentua	Emakumezkoak (%)	Gizonezkoak (%)
II Lak	42	58
AZ Lak	61	39
Ikasleak	51	49

Hau da, ikusten da joera nahiko orekatua dagoela bi sexuen artean, batez ere ikasleei dagokienez. II Len artean, gizonezkoen alderanzko nolabaiteko joera bat dago; AZ Len artean, berriz, emakumeen alderanzko joera nabarmena da.

Gobernu-organo eta ordezkari-tza-organo kolegiatu garrantzitsueneek honako osaketa daukate 2014ko abenduaren 31n, emakumeen eta gizonen ehunekoei dagokienez:

Organoak	Ordezkarikopurua	Emakumezkoak (%)	Gizonezkoak (%)
Unibertsitateko Klaustroa	123	42	58
Gobernu Kontseilua	18	33	67
Gizarte Kontseilua	30	27	73
Zentroko Batzarrak			
• Ekonomia eta Enpresa Zientziak	18	28	72
• Giza eta Gizarte Zientziak	19	53	47
• Zientzia Juridikoak	19	47	53
• Nekazaritza ingeniariak	20	60	40
• Telekomunikazio eta Industria In- geniariak	22	18	82
• Osasun zientziak	19	63	37
Sailetakokontseiluak, guztira	657	41	59

Aurreko emaitzak ikusta, ondoriozta dezakegu ezen, organo kolegiatu orokorreireparatuta, soilik unibertsitate-klaustroan ikusten dela osaketa orekatu bat, berdintasunaren araudiak aipatutako tarteari dagokionez –hau da, sexu bakoitzak ehuneko 60a eta ez izatea ehuneko 40tik beherakoa–; beste bi organoetan, berriz, gizonezkoen presentziak argi gaintitzen du ehuneko 60ko muga.

Zentroko batzarretatik hiruk gaintitzen dute tarte hori: gizonezkoen presentzia handiagoa dago industria ingeniarienean eta ekonomia zientzietakoan, eta emakumezkoen presentzia handiagoa, berriz, osasun zientzietakoan.

Sailetakokontseiluen multzoari begiratuta, presentzia orekatua da. Hala eta guztiz ere, haiei banaka erreparatuz gero, 13 sailetan desorekak aurkituko ditugu: 10etan gizonezkoek pisu handiagoa dute eta hirutan, berriz, emakumezkoek.

Ignacio Cabeza del Salvador kontu-ikuskatzailea arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarrean dagoen araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2016ko martxoaren 3an
Lehendakaria, Helio Robleda Cabezas

